

3.930 emakumezko bular-minbiziaren kontrako unitatera joateko gonbidapena jaso dute / 5

Mendi istripuak heriotzak, argazkia eta film bat ekarri du, Etxarrin eta Irurtzunen ikusgai / 6

Saio bakarrean Altsasuko auziko apelazioak aztertu ondoren, epaiaren zain gelditu da / 8-9

Euria eta lohia Altsasuko Krosean: Maitane Melero eta Ivan Acereda txapeldunak / 19

Tarima Beltza taldeak 'Madres y Pasotas' antzezlanaren egina du bihar, 19:30ean, Iortia kultur gunean / 23



Guaixe 25
batzen gaituena


Mondragon
Unibertsitatea
Goi Eskola
Politeknikoa

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Arranomendia 2. ORDIZIA — 943 88 00 62 — bulegoa@goierrieskola.org



INGENIARITZA GRADUETAKO
ATE IREKIAK

GOIERRIKO
CAMPUSA

OTSAILAK 2
LARUNBATA 10:30 / ARETO NAGUSIA

MARTXOAK 28
OSTEGUNA 17:30 / ARETO NAGUSIA



Guaixe 25 urtez Sakana sareten

Guaixek 25 urte beteko ditu abenduan. Ospakizunak aurrerago etorriko dira, baina, bitartean, aitzakia polita iruditu zaigu hausnarketa egin eta, bereziki, Guaixeko sareetan –web gunea eta sare sozialak– aldaketak egiteko. Izan ere, etengabe berritzen doaz komunikazio moldeak eta sakandarrok batzen gaituen Guaixek ere zurrumbilo horretan egon nahi du

Maidar Betelu eta Erkuden Ruiz

SAKANA

1994ko abenduan publikatu zen Guaixe Sakanako aldizkariaren lehen alea. Hortaz, 25 urte beteko ditu ordutik hasieran hilabetero eta gero astero publikatzen hasi zen gure Sakanako aldizkari euskaldunak. Transizio bidean, 2001ean Oixe astekaria jaio zen, Guaixe hilabetekariarekin batera elkarbi-zi izan zena, bata hilero eta bestea astero Sakanako etxetara heltzen, 2004an Guaixe hilabetekaria desagertu eta

egungo Guaixe astekaria denak ordezkatu zuenera arte.

Guaixerekin batera, 1999an Beleixe irratiak jaio zen (107.3 FM), ibilbidean aurrera egiten duenak. Eta, web guneak sortu zirenetik sarean sartu zen Guaixe eta egun www.guaixe.eus da Sakanako irakurle euskaldunen web atarrietako bat, sare sozialekin –Facebook, Twitter, Mastodon eta Instagram– batera.

Hauxe da, komunikabideei dagokienez, gure historia labur-laburra. 25 urte beteko ditugu, aurrerago ospatuko dugu, bai-

na urte berezi honi aldaketekin ekin nahi diogu, etengabe berritzen doaz komunikazio moldeetan Guaixek, Beleixek eta GK Komunikazioak berri beharra dutelako.

www.guaixe.eus Plataforma Digital berria, gaurtik indarrean

Paperezko Guaixea da gure produktu izarra, baina www.guaixe.eus web gunea ere geroz eta trafiko handiagoa du. Esaterako, 2017tik 2018ra 35.382 bisitan gora egin zuen gure web guneak, %13,49 hazi zen bisiten

kopurua. Pentsa, 2013ko abenduan 2.970 bisita izan genituen, eta 2018ko abenduan 14.356 bisita izan ziren. Zer nolako aldea! Iazko bisita pikorik altuena ekainean izan genuen, 34.495 bisita. Beraz, geroz eta web irakurle gehiago ditugu.


Eta irakurle horiek, gaurtik aurrera, www.guaixe.eus web gunea sartzekoan aldaketa nabarmena sumatuko dute. Izan ere, Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, Plataforma Digitalaren bertsio berria estreinatu du eta Guaixek ere,

Tokikomeko kide izanik, Plataforma Digital berri horrekin bat egin du.

Tokikom Plataforma 2013an sortu zuen Tokikomek, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean, toki komunikabideei euren beharretara egokitutako tresna digital bat eskaintzeko, medio txikien presentzia digital duina erraztu eta edukiak, teknologia, inbertsioak eta alor digitaleko estrategia partekatuzko. Ordu-tik 17 komunikabidek egin dute bat proiektuarekin, tartean Guaixek, eta Plataforma Digitalaren bertsio berria gaur mustuko dugu.

Beraz, gaurtik aurrera itxura berri-berria dakar www.guaixe.eus -ek, eta nabarmenena da bertsio berriak gailu mugikor-rrak, sakelekoak, dituela helburu nagusi, edukiak gailu horietatik kontsumitu zein sortzea errazteko. Izan ere, ikerketek argi erakusten dute erabiltzaileek gehienbat sakelekoetatik kontsumitzen dituztela eduki digitalak –trafikoaren %66tik gora dator gailu mugikorretatik, eta ehuneko hori etengabe haziz doa– eta, horregatik, mugikorrek lehenesteko web gunearen itxura grafikoa eraldatu da: hiru zutabeko diseinu batetik zutabe bakarreko diseinura pasatu gara, eta lehen alderik alde zabaltzen ziren menuak, orain atzamarrak erraz maneiatzeko moduko “hanburgesa estiloko” botoietan bildu ditugu. Orrialdeen karga arintzeko aldaketa teknikoak ere egin dituzte CodeSyntax enpresako kideek, eta diseinua garbitu eta sinplifikatu dute. Administrazio gunean ere aldaketak egin dituzte, kazetariei albisteak mugikorretik zuzenean argitaratu ahal izatea errazteko. Guaixek, Tokikomek eta CodeSyntaxek diseinatu dute www.guaixe.eus Plataformaren bertsio berria, elkarlanean. Bost hilabete luzeko prozesu bat izan da, gaur hasiko da martxan eta ea web gune berritua erabilgarriagoa, intuitiboagoa eta politagoa iruditzen zaizuen.

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com		Etxe pasiboetarako egokia 5 9000	Beirak lehorrean jarrita
			Isolamendu nukleo indartsua	Aparteko azala koloreztatua
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				




Beleixe irratia (107.3 FM)

Guaixe fundazioak bultzada berri bat eman dio Beleixe irratiari (107.3 FM) eta abendutik aurrera astelehenetik ostiralera bi orduko zuzeneko saioak egiten ditugu, 10:00etatik 12:00etara. Prentsa eta eguraldiari errebasoa, eguneko agenda, albistegia, elkarrizketak eta Karrape eta Aralar irratiako esatariekin elkarlanean osutako sarea dira bi ordu horietan eskaintzen direnak. Gainontzeko orduetan, 24 orduko musika eskaintza egiten du Beleixe irratiak.



Bazkide txartel berria

Guaixe fundazioa 1.450 bazkideak dira gure altxor nagusietako bat. Euren babesarekin egiten dute aurrera gure proiektuek. Eurei esker ona azaltzeko, aurki BG txartel berritua jasoko dute gure bazkideek eta txartel horri esker, Sakanako makina bat komertzioetan egiten dituzten erosketetan onurak eta hobariak izango dituzte.

Guaixe fundazioa Nafarroako Gobernuak MEC-NA Mezenasgoa Kultura Programan sartuta dagoenez, Guaixeko bazkideek egindako ekarpenaren %80a jasotzen dute bueltan Errenta Aitorpena egitearakoan. Adibidez, urtero 50 urte ordaintzen dituzten bazkideei Errenta Aitorpenean 40 euro itzultzen dizkio Ogasunak. Eta, horretaz gain, bazkideek BG txartelarekin onurak dituzte Sakanako zenbait saltokietan eta hilabetean behin gure bazkideen artean hainbat produktu lote zozketatzen ditugu. Eta gure zerbitzu eta produktueta eskelak, diseinua, irratiako kuñak...- beherapenak dituzte. Ez da truke kaxkarra, ezta?

Bestalde, gure bazkideek berehala jasoko dute Guaixe pegatina berria, euren buzoietan itsasteko, etxe horretan paperezko Guaixea jasotzen dutela ziurtatzen duen pegatina. Banatzaileen asteroko lan fina errazteko asmoz egiten da hau.



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

GK zerbitzua

Guaixe fundazioak duen beste zerbitzu bat GK diseinua eta komunikazio zerbitzua da. Zure enpresarako txartela behar duzula, etorri eta logoa diseinatu eta txartela egingo dizugu, zure beharretara; zure herrian aldizkari bat egin nahi duzula, zatoz! Denetarik egiten dugu: diseinu grafikoa eta ilustrazioa (logotipoak, kartelak, txartelak, festetako programak, eskuorriak...), editoriala (liburuak, boletinak, aldizkariak, katalogoak...), marketing digitala (web orriak, sare sozialen kudeaketa, ...), itzulpenak eta edukien sormena eta erredakzio lanak, besteak beste.

Sare sozialak

Ekin lokaletik, eragin globalean edo, beste modu batera esanda, Sakanatik mundura.

Komunikazioaren eta informazioaren munduak aldaketa nabarmena izan du azken urteetan. Etengabeko eraldaketa ematen ari da. Hortaz, 25. urteurrenarekin batera eraldaketa horren parte izanen da Guaixe. Esan bezala, Plataforma berria mustuko dugu, eta, horrekin batera, Sare Sozialetan fokua jarri dugu ere. Sare Sozialak etengabeko informazio iturriak dira; beraz, komunikabide bezala, Guaixeren Sare Sozialak Sakanako bat bateko informazio iturria izanen dira. Beti ere, euskaraz. Beleixe Irratia eta Gkrekin berdina eginen dugu.

Facebook, Twitter, Mastodon eta Instagram sare sozialetan aurkituko duzue Guaixe.



Atsegin du Facebook-en (Guaixe Sakanako Astekaria) 4.500 lagun baino gehiago gara, baina eraldaketa prozesu honetan, gure Facebook profila orrialdea edo fanpage bihurtuko dugu. Guaixe komunikabide bat den heinean, profesionaltasunera salto egitea erabaki dugu eta fanpage orrialdeak aukera hori ematen digu. Izan ere, Facebook-eko profilak pertsonendako bideratuta daude, eta Guaixe, zuen laguna izatea gustuko duen arren, komunikabide bat da. Guaixeren profileko informazio guztia eta berdina jasoko duzue Facebookeko Guaixe fanpage orrialdean @guaixe. Egin beharreko gauza bakarra orrialdeari atsegin dut botoian sakatzea da.



Jarraitu Twitter sare sozialean ere aldaketak izanen dira: azken orduko informazioa eskaintzea izanen du helburu. Beraz, @guaixe-ren denbora lerroa dinamikoagoa izanen da. 2.500 jarraitzaile inguru ditu, une honetan, Guaixek txoriaren sare sozialean.



Jarraitu Mastodon sare sozial askera ere egin du salto Guaixek aurrean. Mastodon.eus instantzia berria sortu bezain laister erabaki zuen Guaixek kontua irekitzea. @guaixe kontuan ere azken orduko informazioa eskaintzea izanen da helburua.



Jarraitu Instagram sare sozial gaztera salto egin du Guaixek ere (@guaixe). Argazkiei eta irudiei garrantzia ematen dion sare sozial honetan, Guaixek haren irudiak elkarbanatuko ditu, baita zuzeneko bideoak eta informazioa ere eskainiko ditu. Besteak beste, Instagram sare sozialeko jarraitzaileek kazetarion lana barrutik ezagutzeko aukera izanen dute.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Herrikide ixilen azkena

Lurretik zerura. Hazitik zuhaitz. Denboraren zaindaria dira gure arbasoek landatutako enbor biziak. Gernikatik Altsasura, haritz edo intxaurren gogoangarri, haien beso eta zuztarren zabalerak, ehunka uda eta neguren orbain eta arrastoren lekuko dira. Itzal fresko, bizi babes. Urteen igaroan, hor daude plaza eta parkeetan, bide bazter eta ibai konkretan. Gure paisaiaren parte, gure memoria eta orientazioaren zutarrak.

Baina berriak lekua eskatzen duenean, modak eta estiloak arkitektura aldaketak eskatzen dituenean, soberan daude haren adar, hosto eta itzalak. Urbanismo berritzaileen, arrasto zuzen eta eraikuntza poligonalekin traba bihurtzen dira. Obren biktima, denbora zaharren ordezkari atzerakoi, agintarien ekarpen berritzaileen ordain. Berria hobea dela sinisturik, zaharra baloratzea ez da gurea. Hartzeko labadore txukunak izanik, makina ikuzgailuengatik aldatzean, haiek eraistea erabaki genuen behin.

GURE PAISAIAREN PARTE, GURE MEMORIA ETA ORIENTAZIOAREN ZUTARRI

Arbizuko plazako zuhaitzak desagertu dira. 73 urteko platanero zaharrak. Bizitza osoa ezagutu ditugun herrikide ixilak. Zabal dago kale nagusia, beste herri bat dirudi. Udako eguzkiaren itzal zirenak desagerturik, haien ordezkioak azkar haziko diren esperantza du herriak. Pena sentitu genuen urtarilaren 17an, makinek zatitu eta lurra jo arte zartatutako haien amaiera ikustean. Berriak azkar haziko ahal dira. Gogoeta bera herri osoan: nola botatzen den faltan, beti aurrean izan arren, inoiz baloratu ez duguna.

GUTUNAK: karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

LowCost Jendea

AINGERU MIKEO

Garai batean arrunta zer 'jet set' hitzaren erabilpena eta, batez ere, aberaskumeak izendatzeko erabiltzen zen. Hitzaren jatorriari dagokionez, garaiko aberats haiek bidaiatzeko zuten eratik sortu zen, 'jet aircaifts' hegazkinetatik hain zuzen ere. Gaur egun, gainbeheran dagoen hitza da, horren lekuan, "jende vip" hitzaren erabilera nahiko hedatua bada ere (Very Important Person / Oso Jende Inportantea). Horien orde, 'low cost' hitza da erabat nagusitu dena. Hitz honen jatorriak ere hegazkin bidaiatzeko erarekin du zerikusia, prezio merkean kasu honetan.

Baina, gaur egun, hegaldiez gain, beste edozein arlotara ere zabaldu da horren erabilera, alegia, erosketak 'low cost' egitera, edo produktuak 'low cost' kontsumitzera. Horren atzean, produktuak saltzeko merke izatea eta high-fashion estrategiak baliatzen dira, hau da, lilura, erakargarritasuna eta iheskortasuna. Eredu horretakoak dira Primark, Zara, Uniqlo, eta H&M bezalakoak. Baina, ez soilik arropa eta janzteko osagarrien moda, baita beste edozein arlora edo zerbitzulari ere hedatzen ari da estilo hori, esaterako, produktuen banatzaileak (Amazon eta Alibaba bezalakoak), edo taxien mundura ere (Uber), tartean Ikea eta beste makina bat marka edo negozio.

Munduaren benetako globalizazioaren zirkloan

sarturik gaude, mundu osoan produktu berdina berdina kontsumitzen dira, "low cost", eta, horrekin batera, mundu osoan pertsona "low cost" sortzen ari dira. Izan ere, Primark produktu bat kontsumitzen denean, prezio merke horren atzean, ekoizpen eta banaketa kate horretan oso merke lan egin duten pertsonak daude. Edo, Amazonen oso merke erosten denean, berdin, horren atzean oso merke eta inolako bermerik gabe lan egiten duten pertsonak daude. XXI. mendeko esklabutza da, hau da, lan ordu asko eta hilabete hondarrera ailegatzeko ematen ez duten soldadak dituzten kontratadunak edo autonomoak.

Izan ere, lilurak, erakargarritasunak eta iheskortasunak prezio bat dauka: LowCost jendea.

OBJEKTIBOTIK



Futbol urpekaria

Asteazkenean elkarriketen izarra den futbolaren orde, eguraldiak hartu zuen protagonismoa. Elurra, euria

eta haizea ekarri zizkigun iparrak eta aspaldi hutsak zeuden ibaiak bete zizkigun, baina futbol zelaiak ere bete zituen. Agian Ziordian futbol urpekariak hitz egin zuten.

Mertxek, Altsasuko meteorologi estazioaren arduradunak, esan digunez, bera arduradun denetik lehen aldia da 24 ordutan 74,5 litro jaso dituela.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Eredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Eredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundifano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bular-minbizi atzemateko unitate mugikorra Etxarri Aranatzan.

Bular-minbiziaren kontrako unitatea gurean

Gonbidapena jaso duten emakumezkoak parte hartzearen garrantzia nabarmendu dute Osasunbidetik, goiz detektatuta gaitza kontrola daitekeelako. Duela bi urteko parte hartzea % 87,72koa izan zen

SAKANA

Bular-minbiziaren hilkortasuna txikitu, bizi-iraupena handitu eta kaltetutako emakumezkoen bizi kalitatea hobetzeko asmoa du bular-minbizi goiztiar atzemateko programak. Osasun Departamentuaren egitasmoa da. 1990ean martxan jarri zen eta 45 eta 69 urte arteko (biak barne) emakume guztiei zuzenduta dago, baita lehen mailako senideetan (ama edo alabak eta ahizpak) aurrekariak dituztenendako. Programa eta zerbitzua emakumezkoek hurbiltzeko eta hartan gehiagok parte hartzeko Osasunbideak unitate mugikorra du. Oraingoa programaren 15. aldia da.

Nafarroako Gobernuaren unitate mugikorra hartzen duen

autobusa bi urtetan behin edo etortzen da Sakanara eta hiru

geldialdi egiten ditu Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeen ondoan. Burundan dagoeneko egon da (abenduarien 10etik ilbeltzaren 9ra) eta Etxarri Aranaztik pasa ondoren (ilbeltzaren 14tik 24ra) Irurtzuna joko du (ilbeltzaren 28tik otsailaren 8ra). Arakildarrez aparte Irurtzunen Araitz, Imotz, Iza eta Larraungo emakumezkoek pasako dute azterketa.

Osasunbideak oraingoa hitzordua 1949ko ilbeltzaren 1etik 1974ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako 3.930 emakumezko bidali zien etxera (aurreko aldian baino 142 gehiago). Haietako 404k estreinakoz parte hartuko du programan. Gainera, arriskuzko familia aurrekariak dituzten beste 17 emakumezko ere jaso dute hitzordua (6 gutxiago).

Guztiei mamografiaren teknika aplikatzen zaie, eta bular bakoitzeko bina proiektzio egiten diete, zehar-erdi-alboko eta kraneo-kaudala. Oro har, behaketen arteko tartea bi urtekoa izaten da, baina detektatutako patologiak eskatuz gero, tartea urtebetekoa izan ohi da.

Ibarraren turismo eskaintza Fiturren

Plazaola bide berdearen Irurtzun-Saratsa arteko zatia atzo aurkeztu zuten ministerioaren standean

SAKANA

Nazioarteko turismo azokak, Fiturrek, Madrilen atek heregun zabaldu eta etzi itxiko ditu. Nafarroako Gobernuak standea du azokan, turismo arloko profesionaleri, eta bisitariari, herrialdearen berri emateko. Sakanak azken bi urteetan baino presentzia txikiagoa izanen du stand horretan aurten, baina han izanen dira Dastatu Sakana esku-orria eta Sakanako xenden mapa eskuragarri. Sakanako Garapen Agentziako turismo eta elikadura teknikariak Paki Urbitarte eta Nerea Viana gaur, Nafarroako Egunean, azokan izanen dira.

Bestalde, Arakilgo Udala kide duen Plazaola turismo partzuergoak du izen bereko bide berdearen proiektua aurrera eramateko konpromisoa. Irurtzun eta Saratsa arteko zatiko lanak ia despedituta daude eta Plazaolako bide berdearen zati hori Fiturren atzo aurkeztuko zuen, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren standean, hark finantzatzen baitu lana.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren standeko merkataritza-salmahaietan Etxarri Aranazko Goazen Bidaiek-eko arduradun Valen Ormazabal dago.

Bular-minbiziaren kontrako programa

Osasun eskualdea	15. aldia			14. aldia		
	Estreinakoz	Aurretik deituak	Guztira	Gonbidapenak	Parte-Parte-hartzea hartzaileak	%
Irurtzun*	144	1.478	1.622	1.583	1.407	88,88
Etxarri A.	106	933	1.039	1.009	894	88,60
Altsasu	154	1.115	1.269	1.196	1.022	85,45
Guztira	404	3.526	3.930	3.788	3.323	87,72

*ARAKILGOEZ APARTE,ARAITZ, IMOTZ, IZA ETA LARRAUNGOAK.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Bateti bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea
11:55 Bukaera

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

Mendi istripua, heriotza, argazkia eta filma

"Pumori, mendiaren alaba" dokumentala ibarreko bi herritan ikusteko aukera izanen da: Etxarri Aranazko kultur etxean, igandean, 18:00etan eta 19:30ean; Irurtzongo kultur etxean, berriz, asteazkenean, 20:00etan

ETXARRI ARANATZ

Izenburuko mendi istripua 2001eko lastailaren 17an izan zen, Nepalgo Pumori mendian, 6.300 metrora. Izotz-jausi batek azpian hartu zuen euskal mendizaleen espedizio bat. Han hil ziren 22 eta 27 urte artean zituzten Beñat Arrue aizarnarra, Iñaki Aiertza aizarnazabaldarra, Cesar Nieto iruindarra, Javier Arkauz lakuntzarra eta Aritz Artieda etxarriarra. Aurretik Beñatek egindako argazki batek Nepalera joan-etorriak ekarri zituen eta, gerora, elkartasun istorio bat.

Iban Gonzalezek hartan dokumental bat ikusi zuen. Esan eta egin. Lanak espedizioan hil ziren bost mendizaleak omendu eta Suku Mayaren historia kontatzen du. Espedizio hartan hil zen etxarriarraren arrea Idoia Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) izan da dokumentalaz hizketan.

Zer ekartzen dizute gogora Alex Txikonen hitz hauek: istripua izan zenetik Pumorira ez da euskaldunik igo?

Duela 18 urte gertatutako zerbaitek nolako soka luzea ekarri duen. Harrituta geratzen naiz. Mendi istripua izan zen. Mendi istripu asko izan dira. Egia da mendi istripu oso handia izan zela bat-batean bost lagun hiltzea. Gauza larria izan zen. Hortik zerbait polita etorri da. Laguntzen duen zerbait, elkartasun handikoa. Suku gaur egun Euskal Herrian sendatzen ari da. Sendatzeko dago bere Euskal Herriko aitarekin eta amarekin. Eta familia guztiarekin.

Harrituta geratzen gara horrek jendearengan nolako interesa sortu duen. Jakin-mina, puntu horretaraino nola heldu garen. Istripuaren berri, nik esango nuke, Euskal Herriko adin batetik gorako jende gehienak daukala. Agian gaztetxoek ez dakite zer gertatu zen urte har-



Dokumentalaren kartel iragarlea. UTZITAKOIA

"MENDIAK GAUZA TXARRAK ETA GAUZA ONAK DAUZKA, ETA GAUZA ONAK ASKO, GAINERA"

tan Himalayako mendi hartan. Agian, orain badaukate horren berri.

Txikonnek dio 2001 urtea euskal mendizaletasunean pasarte beltzetako bat izan zela.

Kopuru handiarengatik.

Adinagatik, agian.

Mendizaleak, oro har, normalean gazteak. Badaude mendizale helduagoak ere. Badaude Himalayan gora eta behera mendirik altuenetan ibiltzen diren pertsona heldu-helduak, Carlos Soria, esaterako, 79 urterekin hor ibiltzen da zortzi milakoetan. **2001 urtea. 18 urte pasa behar izan dira ekoiztetxe bat, Txikon zuen-gana, familiengana iristeko eta dokumental bati indartsu aurre egiteko?**

Badauka zentzua 18 urte behar izate horrek. Zentzua zera da: Suku gero eta gaixoago zegoen. Orain sendatze prozesuan dago.

Duela urte eta erdi inguru etorri zen hona, sendatzen jarraitzen. Horrek sortu du jakin-mina, ikusmina, harridura, maitasuna.

Zein da Suku?

Istripua izan zenean gorpuak ezin izan genituen berreskuratut. Baina gure familiakoen hainbat objektu berreskuratut ahal izan genituen, tartean argazki-karretak. Noski, argazkiak errebelatu genituen, ikusi genituen. Haietako batean Aizarnako Beñaten argazki bat zegoen: zutik, bi makila eskuetan, eta bere oinetan 3 urte inguruko neskatxo txikitxo bat. Argazki guztien arteko beste bat.

Istripua izan eta urtebete geroago, hainbat senide lekua ezagutzera joan ginen: Beñaten gurasoak, Aizarnazabalgo Iñakiren neska-laguna, ni joan nintzen eta, gurekin, Benantxio Irureta, espedizioan zegoen besteetako bat zen. Pumoriko oinarritzko kanpamentura heltzeaz aparte, Beñaten gurasoek, Arantxa Gurrutzagak eta Pello Arruek, neska hura aurkitu nahi izan zuten. Galdetuz, pixkanaka-pixkanaka. Benantxiori esker, gutxi gorabehera non galdetu, zein

herritan, bazekiten. Lortu zuten neska aurkitzea.

Harrez geroz, Arantxak eta Pellok, ez dakit, hiruzpalau urtero, hara joan dira, Nepalera, Pumori ingurura. Horrela ezagutu dute Sukuren prozesua: nola joan den hazten, baina gaixotzen ere. Heldu zen momentu bat, duela bi urte inguru, non joan ziren eta Suku oso gaixo zegoen. Sukuren gurasoen baimenarekin erabaki zuten gaztetxoa hona ekartzea. Horrek sortu du jakin-mina.

Gu bitan joan gara, behin Iñaki Otxoa de Oltzarekin.

Mendiko beste istorio eder bat.

Bai. Mendiak gauza txarrak eta gauza onak dauzka, eta gauza onak asko, gainera.

Bi emanaldi Etxarri eta beste bat Irurtzunen. Zer gertatu da?

Dokumentala egin duen ekoiztetxeak galdetu zigun ea Etxarri Aranatzen eman nahi genuen. Eta baietz. Etxarriara ekarri genuen eta emanaldi bakarra aurreikusitua zen. Harrera ikaragarria izan zen, eta bigarren emanaldia eginen dugu. Bai Etxarriko bai Irurtzongo sarrerako dirua Iñaki Otxoa de Oltza-SOS Himalaya fundazioarendako izanen da.

Pena Txikon hemen ez dagoela.

Beste lan batzuetan dago eta ea ongi ateratzen zaion dena, igo ala ez igo. Betikoa.

Pumori, mendiaren alaba izenburua du dokumentalak.

Pumorik nepalieraz hori esan nahi du, mendiaren alaba. Eta mendiaren alaba da ere Suku. Izena ere lotuta dago.

Zer ikustera joanen da jendea?

Guk ez dugu filma ikusi. Iban zuzendariak lehengoan esan zigunez, bere ustez oso dokumental hunkigarria da; gogorra, goxoa, paisaia ederrekoa; kontakizun autentikoduna; gordina, baina sentsibilitateduna; tristea eta itxaropentsua. Eta gero esan zigun: negar handiak egin ditut prozesuan. Eta senideok, momentu hartan, irribarretxo egin genuen.

Ahizpak ari zarete Etxarriko atolatzen. Gurasoak nola daude?

Isil. Ez diote gauza handirik. Harrerarekin harrituta.

Joateko asmorik?

Bai, familia joanen gara. Ilobak ere bai. Ilobekin oso harrituta gaude, zer inplikaturik dauden. Nola ari diren prozesua bizitzen. Nahiz eta Aritz osaba ez ezagutu, baina osabaz oso harro daude.



Langilea zuntza jartzen.

Banda zabaleko sarea herrian barna zabalduko dute

Industrialdean eta herria zabalduko dute zuntz optikoa, ustez martxoan despeditu aurretik

UHARTE ARAKIL

Europako Agenda Digitalak jasotzen duenez, 2020rako hiritar guztiek banda zabaleko sareak eskura izan beharko dute. Eta, gainera, etxebizitzaren erdiek Internetarako ehun megabiteseko konexioa izan beharko dute. Europako agindua bete asmoz, Nafarroako Gobernuak Banda Zabaleko Plan Zuzendaria onartu zuen. Helburu horrekin, Narsertic enpresa publikoak Uharteko Arakilen banda zabaleko sarea zabaltzeko beharrezko kanalizazioak egiteko lanak eman ditu. Montajes Temon SLk eginen ditu lanak eta horien truke 47.391,36 euro jasoko ditu. Juana Sainz Betelu alkateak jakinarazi digunez, lanak banda zabala industrialdera eta herrian zabaltzeko lanak lehen hiru hilabetean despeditu nahi dituzte. Gero zuntz optikoa zabaltzeaz Adamo enpresa arduratuko da, zati batzuetan lurpetik joanen da, besteetan, paretetatik.

Bestalde, Sainz alkateak jakinarazi digu udaletxeko igogailua araudira egokitzeko lanak despeditu direla. Baita udaletxeko safeian egin beharrekoak. Teilatuen azpian 330 metro karratuko espazioa egokitu dute bi gela handi eta bildegia sortuz. Mustutze data falta da.

Autopistako bidesariko hobari osagarria onartuta

Atzera eraginez aplikatuko da, urte hasieratik. 24 ordutan joan-etorria egiten duten ibilgailu arinendako da

SAKANA
Nafarroako Gobernuak bidesariaren hobaria Nafarroako Autopistaren (AP-15) bidesariaren hobaria pagatzen du joan den mendeko azken hamarkadatik. Azpiegitura maiz erabiltzen eta

Via-T gailua duten gidariek badakite neurri horrek euren gas-tua asko murrizten duela. Lehendik zegoen hobariari beste bat gehituko zaio: 24 ordutan joan-etorria egiten duten ibilgailu arinendako hobaria da.

Bide sariak Irurtzun-Iruñea

	Ibilgailu arinak
Ohiko joan-etorria	4,4
Joan-etorria 24 ordutan lehengo deskontuarekin	1,36
Deskontu berriarekin	0,27
Hilean 20 joan-etorri, deskonturik gabe	88
Hilean 20 joan-etorri, lehengo deskontuarekin	3,38
Deskontu berriarekin	1,2

Musika eskolekiko konpromisoa beteta

Sakanako bost musika eskolek joan den urteari dagozkion 121.653,78 euroko diru-laguntza jaso dute Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentutik. Ikasleen matrikularekin eta udalen ekarpenarekin osatzen dira aurrekontuak

SAKANA
Udal musika eskolek euren aurrekontua hiru diru-iturrietatik osatzen dute: udalen aurrekontua, ikasleen matrikulak eta Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza. Finantza krisiak Nafarroako Gobernuaren diru-poltsak hustu egin zituen eta musika-ikasketen kostuaren zama udalen eta ikasleen bizkar gelditu zen kasik. Hezkuntza Departamentuak pasa den urtean jakinarazi zuen lortu zuela 2010eko diru-murrizketak lehengoratzea. 2.195.460,84 euro banatu ditu 51 musika eskolen artean. Kopuru horren

% 5,54 jaso dute Sakanako Nafarroako populazioaren % bost musika eskolek; ibarra 3,11 da.

Sakanako musika eskolendako diru-laguntzak 2018

Herria	Lastailean jasoa	Ilbeltzean jasoa	Guztira
Irurtzun	18.888,63	9.444,31	28.332,94
Lakuntza	14.743,10	7.371,35	22.114,45
Etxarri A.	24.654,96	12.327,48	36.982,44
Altsasu	19.309,42	9.654,71	28.964,13
Olatzagutia	3.506,55	1.753,27	5.259,82
Guztira	81.102,66	40.551,12	121.653,78

ELKARREKIN HEZKUNTZA ERALDATZEN

IÑIGO ARITZA IKASTOLA
 ikastola@inigoarizta.eus
 San Pedro, 16. Altsasu
 948 562951

ANDRA MARI IKASTOLA
 etxarri@ikastola.eus
 Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz
 948 46 02 86

TXIOKA HAUR IKASTOLA
 txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus
 Santokristobarren, z/g. Altsasu
 948 37 30 23

ikastolenelkartea



Iortia ezkaratza beteta TV3ren dokumentala ikusteko zain. @ALTSASUGURASOAK

"Proporzionaltasuna eta justizia", Parlamentutik eskaera

Nafarroako Gobernuari eusten dion laukoaren babesarekin onartu zen erakunde adierazpena.

ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Bozemaileen Batzordeak Altsasuko auziari buruzko erakunde adierazpena onartu zuen astelehenean. Han jaso gelditu denez, Nafarroako Parlamentuak "ezinbestekotzat jotzen du epaitegi prozesu guztietan justizia eta proporzionaltasuna presente egotea, baita 2016ko lastailaren 15ean Altsasun izan ziren gertakarien ingurukoan ere, zeina aste honetan Auzitegi Nazionaleko apelazio aretoan beraztertuko den".

Horrekin batera, "zenbait sektore politikok auzi horren kontura Altsasuko herriari ezarri dioten eta ezartzen segitu nahi dioten instrumentalizazioa eta manipulazioa" "irmoki" salatu ditu Nafarroako Parlamentuak. Azkenik, erakunde adierazpenaren bidez Parlamentuak "Altsasuko herriari babes osoa"

azaldu dio eta "bi urte horietan altsasuarrek elkarbizitzaren, normalizazioaren, justiziaren eta proporzionaltasunaren alde izan duten jarrera zibikoa eta eredugarria" aitortu du, "horrela lan egiten segitzeko" animatuz.

Erakunde adierazpenaren alde gobernuari eusten dion laukoak bozkatu du. UPNk eta PPK kontra bozkatu dute eta PSN bigarren puntuaren aldeko botoa eman du eta aurrenekoaren eta atzecoaren kontra.

Asteartean, bestalde, Kataluniako telebista publikoak, TV3k Altsasuko auziari buruzko *Altsasu, zauri irekiak* dokumentala eman zuen. Hura zuzenean ikusteko Iortia kultur gunea bete zen. Gurasoen iritziz, "oso ekarpen aberatsa izan da, ikuspuntu zabaletik". Igandean izanen da lana ETB2n ikusteko aukera, 22:00etan.

Altsasuko auzia, berriro, epaileen zain

Espainiako Auzitegi Nazionaleko apelazio aretoak Altsasuko auziko fiskaltzak, akusazioek eta defentsek aurkeztutako apelazioak aztertu zituen herenegun. Sei lekuko berriren testigantzak entzun ziren. Epaia epe laburrean emanen dute

ALTSASU

Zenbait pertsonen eta bi guardia zibilaren eta haien bikoteen artean Altsasuko taberna batean 2016ko lastailaren 15eko goizaldean gertatutakoa bigarrenez Espainiako Auzitegi Nazionalean epaitu da. Oraingoan apelazio aretoan. Aldeek aurkeztutako apelazioak aztertzeko bi egun aurrekusten baziren ere, bi ordu eta erdiko saio labur bakanen despiditu da dena herenegun. Auzipetuek Zaballako espetxetik eta Iruñeko espetxetik bideokonferentzia bidez epaiketa segitu zuten.

Aurreneko epaiketan lekukotza eman ezin izan zuten Jon Anderren eta Julenen sei lekukok (lau gizonezko eta bi emakumezko) euren testigantza eman zuten. Gainera, Oihanek hainbat dei borratu zituela ziurtatzen da eta hark deitutako telefono zenbakien fakturak proba gisa aurkezteko aukera zuen bere defentsak. Azkenik, Espainiako Gobernuak EH Bilduko Jon Iñarritu senatariari emandako erantzun bat ere epaimahaia frogatzea gisa onartu du. Gazteak zigortu zituen epaimahaiko buru Concepcion Espejeli Guardia Civilak emandako dominaz galdetu zuen Iñarrituk.

Lekukok

Jon Anderren eta Julenen defentsek proposatutako sei lekukok euren testigantza eman zuten. 2016ko lastailaren 15eko goizaldean tabernan izan zirenek adierazi zuten minutu gutxiko liskarra izan zela eta ez zela alde aurretik prestatutakoa izan. Lekuko guztiek ukatu egin zuten Jon Ander Koxka tabernan ikusi izana liskarra hasi zen unean. Beste taberna batean zegoela gaineratu zuten. Bestalde, Julenek ez zuela inolako kolpatu entzun zen herenegun auzitegian. Lekuko batek azaldu zuenez, Oihan ez zen tabernatik kalera atera istiluen ondoren.



Herenegungo apelazio auzia egiteko epai-gelaz aldatu behar izan zuten.

LEHEN EPAIKETAN ATZERA BOTATAKO SEI LEKUKOK TESTIGANTZA EMAN ZUTEN

Guardia Civileko tenientearen bikotearen laguna zen lekuko batek azaldu zuen ez zuela erasorik ikusi, txupito baso batzuk jaurti zirela bakarrik. Kalera atera zenean, teniente lurrean botata eta haren bikotea kuxkurtuta eta beldurtuta ikusi zituela. Emakumeari laguntza eskaini zion, baina uko egin ziola azaldu zuen. Biharamunean, sakelako telefonoarekin mezua bidali zion nola zegoen jakiteko, baina ez zion erantzun, eta, ordu geroztik, ez dute berriro hitz egin. Beraz, sei lekukoek testigantzek akusazioen kontakizuna kontraesanean jarri du, taberna barruan talde erasorik, irainik, beldurrarazterik eta indarkeriarik izan zenik ukatuz.

Fiskaltza eta akusazioak

Jose Luis Peral fiskalak auzipetuendako kartzela-zigorrek

handitzea eskatu du. Mehatxu eta delitu terroristak egitea egotzita, 12 eta 62 urte arteko espetxe-zigorrek ezartzea eskatu zuen. Eta zigor alternatiboak ere proposatu zituen atzera ere: 6 eta 17 urteko zigorrak, terrorismo eta desordena publiko delituak leporatuta. Udaberriko epaiketan esan zuen moduan, zortzi auzipetuek "ETA erakunde terroristaren ideien eta estrategiaren oinardekoak dira".

Fiskalak herenegungo epaiketan ukatu egin zuen inolako "konspiraziori" edo "poliziamuntiarik" izan zenik auzian: "Guardia Civilaren eta bi emakumezkoen kontrako atentatu baten aurrean gaude, ez ahaztu". Testigantzei dagokionez, esan zuen Jon Ander beste tabernan egonda ere, hura "gertu dago eta joan zitekeen batetik bestera inork ikusi ez arren". Eta gaineratu zuen lekukoetako batek polizia-muntaiak salatzeke manifestazio batean parte hartu zuela. Hainbat lekukori galdetu zien horretaz.

Peralsek garrantzia kendu zien lekukotzei eta "auzipetuengandik gertukoak" direla ohartarazi zuen. Aldi, berean, esan zuen

Sakanaoptika
optometria - audimetria - kontakotologia
Informatio zehatzikoa 10 • 3800 / Ibilbide
T. 948 563 125 • www.optikasakana.com

* Kontuak promozioan dauden modelok

GAES
BARRAZKALE OFIZIALA

%40 arteko DESKONTUA AUDIFONOETAN

PROBATU DOAN audifonoak eztean

2019ko Otsailak 28 arteko eskaintza. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin

haien lekukotza “biziatuta” da-goela, udaberriko epaiketaren berri eta emandako lekukotzen berri dutelako. Gaineratu du lekukoetako batek polizia-muntaia salatzeke manifestazio batean parte hartu zuela. Bestetik, Estatuko abokatuarendako herenegungo lekukotzak “funtsik gabekoak” izan ziren. Coviteren izenean herri akusazio gisa ari den Ruben Mugikak antzeko argudioak erabili zituen eta gaineratu zuenez, epaia eta denbora pasa arren Altsasukoa tabernako liskar gisa ikusten dela gaitzetsi zuen. Bi emakumezkoen ordezkaria den abokatu ez zen auzitegian izan.

Defentsak

Julenen abokatuak Manuel Ollek nabarmendu zuen lekukotzek bere defendatua tabernan kokatzen dutela, baina ez zuela inor jo. Herenegungo lekukotzak udaberriaren entzundakoekin bat datozela azpimarratu zuen eta Julenen kontrako proba bakarria akusatuen lekukotzak direla gaineratu zuen. Fiskaltzak eta abokatuak atzoko lekukoekin berri bazutela baina euren kontakizuna ez izorratzeko ez zituztela testigantza ematera deitu esan zuen. Eta manifestazioetara joatea eta egia esatea bateragarriak direla gaineratu zuen. Azkenik, Julenen absoluzioa eskatu zuen.

Jon Anderren abokatu Eva Gimbernat emandako lekukotzetatik bi nabarmendu zituen, taberna barruan egon zirelako egun hartan. Lekukotzak “oso sendoak” direla nabarmendu zuen eta horiek frogatzen dutela Jon Ander ez zela tabernan egon liskarra izan zen uanean. Abokatuak salatu zuen auzi osoa biktimen testigantzan oinarritu



Auzipetuen senideak Espainiako Auzitegi Nazionalaren kanpoko aldean. @ALTSASUGURASOAK

dutela, 15 lekukok esandakoak bazterrean utziaz. Udaberriaren beste lekuko batek esandakoa gogorarazi zuen: Jon Anderrek ez luke auzipetuta egon beharko. Guztiagatik eta “munduko zailantza guztiak daudelako” hura absolbitzeko eskatu zuen.

Oihanen abokatu Jaime Monterok lehenik nabarmendu zuen bere defendatua ez zuela whatsappik borratu, bere telefonoak aplikaziorako ez zela erabilgarria esan zuen. Eta gaineratu zuen telefonoan ez zuela ezer manipulatuta eta auzipetuekin ez zela harremanetan jarri. Guardia Civileko tenienteak liskararen aurretik eztabaida izan zuen bakarren batekin baina hura Oihan dela esatean okertu egiten dela esan zuen abokatuak. Monterok lekukoetako batek esandakoa nabarmendu zuen: Oihanek ez zuen gertakarian parte hartu, tabernaren barruko aldean hizketan zegoelako. Beste lekukotza batekin bat egiten duen deklarazioa dela nabarmendu zuen. Beraz, Oihanen parte hartzearen bertsioa indargabetzen du. Oihanen kontra dagoen frogak bakarria salatzaileen testigantza dela eta absoluzioa eskatu zuen.

Iñakiren eta Aratzen abokatu Jose Luis Galanek adierazi zuen lekukoak lehen instantzian behar ez den bezala ukatuak izan zirela eta salatzaileen sinesgarritasun falta agerian gelditu dela. Iñaki eta Aratzen abokatu Jaione Carrerak bere defendatuaren kontrako frogarik ez dagoela esan eta absoluzioa eskatu zuen. Gauza bera egin zuten Jokinen eta Ainararen abokatu Amaia Izkok, absoluzioa eskatu.

Gurasoen balorazioa

Bel Pozueta Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) izan zen eta lekuko eta proba berriak onartu izanaren inguruan esan zuenez, “bere garaian Jon Anderren eta Julenen defendatzeke eskubidea murriztu zuten, orduan ez lekukorik ez frogarik ez baitzitzaien onartu. Orain batzuk onartu zaizkie, baina ez denak”. Epaimahairen onarpen horri “ongi etorria” egin zioten gurasoek. Aurreko epaiketaren “bai lekukoek bai frogak argi erakusten zuten hau guztia muntaia bat dela. Argi eta garbi ikusten zen, gainera, guardia zibilen aldetik eta euren lagunek

aurkezten zuten kontakizuna ez zeukala oinarririk. Herenegungoarekin ildo hori indartu da. Lehen erakutsitakoa indartu dugu”. Gurasoen iritziz fiskaltzak eta akusazioak zabaldu duten talde-liskararen kontakizuna bertan behera gelditu da.

Hala ere, epaitegirako bidea “beldurrez” egin zuten gurasoek: “beldurra, badakigulako Auzitegi Nazionala salbuespeneko epaitegia dela. Badakigu aurretik frogak eta lekukoak erakutsita ez zutela kasurik egin, ez zituzten kontutan hartu eta eman zuten epaiak Guardia Civilaren kontakizuna indartu zuten”. Beldur badira ere, “aukera bat ikusten dugu, benetan auzi honekin zuzenketa bat emateko, gure sufrimenduari eta bi urte luze hauetan bizi izan dugun injustiziarekin bukatzeko. Borondatea baldin badago”. Gurasoek presoaren askatasuna aurreikusten dutela esan zuen Pozuetak Beleixe Irratian. “Hala ere, bakarren bat barruan geldituko balitz aktibazio sozialarekin segituko genuke. Hori gertatzen bada kalera, beste epaitegira tinko eta indarrez joan gara”.

Gorena, Konstituzio Epaitegia eta Estrasburgo dira auziak egin dezakeen ibilbidea. Aurrenekoan 8 hilabete edo urte bateko ibilbidea litzake. “Orain ez dugu pentsatu nahi urtetan zer egingen dugun. Orain argi dugu eskatzen duguna eta exijitzen duguna honenkin bukatzea eta gure semeen askatasuna”. Altsasu Gurasoak taldeko kideak Madrilen hainbat hitzordu izan dituzte, hedabideekin batez ere, “gure injustizia eta kontakizuna zabaltzeko eta gure lana egiten segitzeko”.

Adierazpenak

Nafarroako Ahal Duguko Mikel Builek ohar bidez adierazi zuen fiskalaren zigor eskaerak “zetzugabeak” direla. Builek espero du “ahozko epaiketaren egon ez zen proportzionaltasuna egoitea”. Ahal Duguko kidearen ustez, “justizia proportzionala ez denean, automatikoki justizia izateari uzten dio”. Bestalde, PPko Nafarroako buru Ana Beltranek kritikatu egin zuen Kataluniako Parlamentuko Roger Torrentek Altsasuko Gurasoen ordezkariak hartzea: “prozesaren eta Nafarroako batasunizazioaren ideologoen arteko ados jartzea erakusten du harrera horrek. Nafarroan Guardia Civila behartze, mehatxu eta erasoaren bidez bota nahi dutenen eta Katalunia gizarte hausturaren kale itxura eraman dutenen arteko ados jartzea eta elkarlana erakusten du”.

GURASOEN "HONEKIN BUKATzea ETA PRESOEN ASKATASUNA" EXIJITZEN DUTE

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

948 467 876 · Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
karfutuak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Konfiantzako aseguradora orokorra!

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

Garai bateko gizarte eta zerga sistema argira

Etxarri Aranazko udal artxiboko XVI. mendetik XIX. mendera hartzen duen liburu baten azterketa egin du Jose Luis Erdozia Mauleonek. Lakuntza eta Bakaiku bitarteko herriek zergak Etxarri Aranatzen ordaindu beharra zuten

SAKANA

Ikertzaile eta euskaltzain urgazle etxarriarrak udal artxiboan larruzko azala duen liburuaz aztertu du. XVI. mendean hasitako liburuari “badirudi agiriak gehitu egiten zizkiotela” eta XIX. mendera artekoak ditu. Hura aztertuta, Jose Luis Erdozia Mauleonek *Etxarri Aranazko Klaberriako liburuaz: eliza fundazio zenbait, herriko sorrera dokumentua eta hamarrenaren nondik norakoa* lana argitaratu zuen joan den urtean. Nafarroako Gobernuaren Principe de Viana aldizkariaren 271 zenbakiaren (maiatza-agorrrila) separata gisa argitaratu zuen.

Klaberia hitza kalbildo moduan hartuta hobe ulertzen da: kleriko edo elizgizonen taldea da eta bere ze-regina, Jainkoari kultu edo gurtzarik goren eskaintzea da. Apezpikuaren kontsulta organoak ziren. Etxarri Aranatzen bat zegoen.

Erdoziak Beleixe Irratian (FM107,3 edo www.guaixe.eus) azaldu duenez, “hasieran behintzat, bere alde nagusia Etxarriko sorrera dokumentua da, 1312koa. Kopia da hori”. 1351ean Karlos I.ak egindako berrespenaren kopia ere hor dago. Erdozia: “nahiz eta Nafarroako Artxiboan bazegoen, hainbat



Erdoziaren lanaren oinarri izan den liburuaz. UTZITOKOA

alditan erre dela jakinda, gauza polita da jakitea herrian bertan dokumentu hori gelditu dela”. Ikerlariak argitu duenez, “badirudi hori sartu beharra izan zutela orduan hasi zirelako orduko zergak (hamarrena, primizia) nola ordaindu behar ziren aztertzen hasi ziren. Horretarako, herriak zer eskubide zituen jakin behar zen”.

Bi estamentu

Herriaren sorrera dokumentuek liburuaren beste bi ataletan aipatzen diren elizaren fundazioei

(kapilautza, urteurren eta abar) eta zergen kobratzeari (hamarrena, primizia) legezotasuna, berme juridikoa ematen die. Azken bi horiek berme ekonomiko-soziala dira. Erdoziak ondorioztatu du egitura horiek mendetan iraun zutela Arañazen eta argitaratutako lanean agertzen direnen azterketa egiten du.

Ikerlariak dioenez, liburuak XVI. mendetik XIX. mendera arteko gizarte “modu zehatzean” antolatua erakusten du, “elizaren eta monarkiaren uztarketa

antolakuntza-iturri izanik. Orduko gizartearen bi estamentuetan bereizita ageri dira artxiboko liburuak. Batetik, pribilegiatuen estamentua, elizaren eta monarkiaren ordezkariak eta haien mesedetan ari direnak osatuta. Euren kobratzen zituzten bi zergak: lurra ematen zuenari lotuta eta elizkizunei lotutakoak (meza abestuak, erreztuak, erresponsoak, arrosarioak, urteurrenak...).

Zer pagatzen zen eta nola

Hori ere jasotzen du artxiboko liburuak. “Etxarri Aranazko Santa Maria eliza buru zen. Lakuntzatik, Arbizutik, Ergoienatik eta baita Bakaikutik ere urtero uztaren zati bat ekarri behar zuten. Eta ez bakarrik uztarena. Baita ere animalia handiengatik eta txikiengatik. Gainera, zehaztuta dago bakoitzak elizari eta erregeari zenbat pagatzen zion”. Etxarri Aranatzen hamarrenaren etxea zegoen eta hor biltzen ziren gehienak. “Apaizek zer bazkari egiten zuten, zer eraman behar zuten eta zerbitzariari zenbat pagatzen zitzaion. Eta hori guztia” agertzen da artxibategian dagoen liburuan.

Erdoziak Sakanako irrati euskaldunean azaldu duenez, “XIII. mendetik ikusten da Etxarri Aranatzen, Uharteko Arakilen bezala, bertan hainbat eskribau finkaturik zeudela. Horiek erregeendako egiten zuten lana; egungo notarioek bezala”. Beste estamentua, populazioaren gehiengo zabala zena, herri xehea da, elizaren eta monarkiaren sustengu zena.

Liburuak “etxarriarrendako interes berezia du, datu dextente ematen dira. Nahiz eta elizaren eta monarkiaren uztarketa

ziren istilu batzuk tartean”. Bat aipatu du: “1679 aldera udalak eta elizak meza emateko duten akordioa berriro beharra dute, kapilau zegoen batek esandakoa betetzen ez zuelako. Argitu eta ordu betera meza eman beharra zuten eta, dirudenez, ez zuten ematen. Herriatik jende asko pasatzen zen eta meza hori beharrezkoa zen eta halakorik egiten ez bazen herriari kalte handia egiten zitzaiola”. Etxarriko seme zen beste kapilau bati ordainduz konpondu zuten goizeko mezaren kontua.

Aipatu auzi horren inguruan Erdoziak argitu du Etxarri Aranazko Udaleko kideak, kontzeju kideak batzarrean bildurik agertzen direla, 86 izen dira. Beste urte batekoan beste 60 agertzen dira. “Bitxia da zeren oso urte desberdintasun gutxiarekin, batean 86 edo bestean 60. Baina bietan jartzen du, gutxienez, bi herenak edo gehiago izan behar zutela bilera baliatzeko. Aldea ikusita zerbait ez dago oso argi”. Izen asko agertzen direnez, onomastika ere ikertu du. Eta liburuan agertzen diren etxeen izenak ere jaso ditu Erdoziak bere lanean.

Erdoziak ikerketa egiteko liburuaren transkripzioa egin du, haren egungo ordena jarraiturik eta www.etxarriaranaz.eus web orriaren jarriko da ikusgai. Gaineratu duenez, toponimiari buruzko beste lan batzuekin ere gauza bera egingen du.

"GAUZA POLITA DA JAKITEA HERRIAN SORRERA DOKUMENTUA DAGOELA"



Batzokian gazteteen aldeko pintaketak, bigarrenez

EAJk jakinarazi duenez, pintaketak eta atea adreiluz ixtea Foruzaingoan salatu du

ALTSASU

Ilbeltzaren 8an izan zen estreinakoa eta pasa den ostiralean atzena. Hamar egunetan bitan jo dute Altsasuko Eusko Alderdi Jeltzalearen batzokiaren kontra. Bietan ere okupazioaren eta

Iruñeko Maravillas gaztetearen aldeko aldarriekin. Pasa den astean batzokiko atea porlanezko adreiluz itxi eta paretan okupazioaren aldeko ikurrekin batera “Uxue, utzi gazteteak bakean. Tapiar vuestros batzo-

kis” pintaketa egin zuten. Altsasuko EAJk “erasoa irmoki gaitzetsi” du. Adierazi dutenez, “eraso horrek gure alderdiaren eta honen parte diren gizonen eta emakumezkoen kontra dagoen jazarpena agerian uzten du”. Eta gaineratu dutenez, “gure gizartearen intolerantzia eta behartzea tokiz kanpo daude”. Geroa Baik, bestalde, eraso salatzearekin batera esan zuen: “jarra onartezina da, ez doana soilik gure koalizioaren kontra, baita aldaketaren kontra ere”.



Kale Nagusiko obrak, maiatzean bukatzeko asmoa dute.

Kale Nagusiko sareak eta zorua berritzeko lanak hasi dira

Hornidura sareko ur ihesak konpondu eta euri-uren eta ur-beltzen sareak banatuko dira araztegia ez kaltetzeko

ARBIZU

Eguberriak pasa bezain laster hasi ziren Erki construcciones SL eta Construcciones Noveleta SLUko langileak Arbizuko kale Nagusia berritzeko lanak egiten. Karmele Maraño Chasco alkateak azaldu duenez, maiatzera-ko despeditu nahi lituzkete. Eta gogorarazi du lanak egiteko arazoia. “ur biltegitik ateratzen diren 10 litroetatik 4 besterik ez dira fakturatzen. Gauez ur pila galtzen da eta horrek guztiak udalarendako kostu handia du”. Horregatik berrituko da ur hornidura sarea.

Alkateak gogorarazi duenez, gaur egun etxeetako ur-beltzak eta euri urak sare berean bat egiten dute eta horrek ur araztegiaren arazoak sortu eta etxeetan usain txarrak eragiten ditu. Bakoitza bere saretik bideratuko dira orain. Gainera, obra plangintzan aldatuta egin du udalak. Marañoek azaldu digunez, hondakindegiko lixibiatuak Lakuntzan dagoen ur-araztegiara eramateko hodiak herria zeharkatuko du eta ondoren bat egiten du ur-beltzen sarekoarekin. Horrela, usain txarrak sortzea saihestu nahi dute. Bestalde, udala gas, argindar eta telefonía sareak lurperatzeko enpresek negoziatzen ari da.

Sareak berritu ondoren, zoladura ere berrituko dute. Horrek kale Nagusiko hirigintzan aldatuta ekarriko du. Oinezkoendako espazio gehiago izanen da eta trafikoarendako bidea estutu egiten da ibilgailuen abia-

dura murrizteko. Aldi berean, autoen aparkalekuak antolatuko dituzte. Arbizun kamioien trafikoarekin arazoa dute. Izan ere, Lakuntzako industriadetik ateratzen diren kamioi askok herria zeharkatzen dute Sakanako Autobia (A-10) hartzeko. Trafiko hori herritik ez pasatzeko zein neurri hartu daitezkeen aztertzen ari dira udalean, nahiz eta “kaleak estutzeak bere lana egingen duela” espero duten.

Kattukako sotoa

Haur eskolaren azpian 900 m²-ko sotoa du Udalak. Garalurren bidez lortutako diru-laguntzaren bidez sotoan leihoak jarri zituzten lehenik. Duela bi urte espazioa banatzen hasi ziren. Lehenik soto hartan gazte txokoa kokatu zuen, 100 m². Tellerieta dermionan eskola berria jasotzeko lanak atzeratu dira. Karmele Maraño Chasco alkateak esan digu ikasturte berrirako prest izanen dela ikastetxe berria, baina, bitartean ikasturte honetan hiru gela eskolatik atera eta aipatu sotoan kokatu dituzte. 200 m² pasako espazioa hartu dute ikasleek behin-behinean. Eskola mustu eta gero espazio hori ludoteka berria izanen da.

Haur eskola azpiko sotoan beste 100 m² udalaren biltegi-ko erabiltzen da eta han langileendako aldagelak eta komunak egin dituzte 12.456,71 euroarekin. Alkateak esan digunez, lehen Utzubarko nabe batean zuten eta orain gertuago dituzte aldagelak langileek.

Hondakindegiko zati bat itxita, lan gehiago bidean

Industriako 98.000 metro kubiko hondakin hartzeko azpiegitura prest dago. Urtero 9.000 metro kubiko hartuko duela kalkulatu dute Sakanako Mankomunitatean. Hurrengoak transferentzia kaiari atek jartzea eta konpost planta

SAKANAKO

Sakanako Mankomunitateak Arbizun kudeatzen ditu ibarrean jasotako hondakinak. Mank-eko hondakindegia zati handi bat (32.000 metro karratu) behin betirako zigilatu zuen joan zen urtean, horretarako, beharrezko lanak eginga. Aldi berean, 22.000 metro karratuko azalerako beste zati bat prestatu dute, 10 urtez erabilgarri izanen dena. Mank-eko Hondakin bilketa Zerbitzuko arduradun Alberto Urkiak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) esan duenez, “prozesu nahiko luzea izan da. Joan den urtean egin ziren lanak 2011n egin behar ziren. Atzerapen dezenterekin gauzatu da egitasmoa”.

1998koa da Arbizuko hondakindegia. “Industrietatik etortzen ziren hondakin bizigabe ez arriskutsuak isurtzen ziren. Etxeetan sortzen diren hiri hondakinak ere hara isurtzen ziren 2009ra arte. Eta lurrarekin estaltzen ziren” azaldu du Urkiak. “Etxeko hondakinak ahalik eta gehien birziklatzeko eta ez isurtzeko asmoarekin 2009an transferentzia kaia egin zen. Ezin dira inolako tratamendurik gabe isuri”.

Orduan zabortegiaren bi heren zigilatzea eta enpresetako hondakinak hartuko lukeen isurketa zelda berri bat egitea posible zela pentsatu zuten. 2011n proiektua egin zuen Mank-ek eta onartua izan zen, “baina krisiak kristoren fretoa egin zuen”. Lana egiteko administrazio lana egin dute ibarreko erakundeek. Enpresetako hondakinak hartzen dituen zelda berria martxan dago eta hondakindegia zaharren erabateko zigilatzerako zaitxo bat falta da. Eguraldi ona iristeko zain daude azken lan hori egiteko.

Lan gehiago

Hiri hondakinak Sakanan jasotzen dira. Baina bi hondakin



Arbizuko hondakindegiko isurketa gune berria. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

INDUSTRIAKO HONDAKIN BIZIGABE EZ ARRISKUTSUAK HARTUKO DITU HAMAR URTETAN

mota ibarretik kanpo bukatzen dute. Ontzi arinak Azkoiaren eta errefusa Tuterako Culebrete hondakindegian. Kamioietan eramaten dituzte. Hori egiteko 2009an transferentzia kai irekia eraiki zen. “Hondakindegian hego haizeak kristoren indarra hartzen du eta plastikoak eta ontzi arinak hegan ateratzen dira. Batzuk hondakindegiko eremuan gelditzen dira eta besteak ondoko larretan”. Hori saihesteko kaia handitu eta atek jarriko dizkiote. “Kamioiak sartuko dira eta lana egin dezakegu, esaterako, gela handi batean bezala. Ateak itxita ez da haizerik sartuko eta sortzen zen egoera hori ahal den neurrian saihestuko da”. Obra 2018an gauzatua egon behar zuen.

Hondakindegian bertan konpost egiten da, inongo estalpe edo babesik gabe. Konpost plan-

ta eginda “baldintza onetan lan egitea eta konpost egitea” lortu nahi da. Abiadura Handiko Trenaren balizko ibilbidearen proiektuak kokapena aldatzea, tramitazio berria egitea ekarri zuen, lanen hasiera atzeratuz. “Hondakindegiko gertu, baina eremutik kanpo egingen da. Onartuta dago, baina ez dakigu aurren edo noiz egingen den”.

Urkiak gogorarazi duenez, udaberriko eta udazkeneko konpost uzta banatzen dute. “Ahalik eta etxebizitza gehienetara iristeko, etxe bakoitzak kopuru mugatu bat dauka: udaberriaren 150 kilo eta udazkenean 100”.

Bestalde, Sakanako Mankomunitatearen Batzar Orokorrak, 2018ko abenduaren 13an egingako bilkuran, hasiera batez onetsi zuen etxeetako hondakinak eta gisakoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo desegiteko tasak eta zerbitzu horrek eskaintzen dituen bestelako jarduerak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldatzea, 2019ko urtarrilaren 1etik ondorioak izango dituen. Kontsumo Prezioaren Indizea kontuan izanik, ibarreko ordezkariak tasak % 2 igotzea erabaki zuten.



Sansaastin ohoratua

Lakuntzako neguko festetan animazio handia izan zen ostiral eguerditik. Hala ere, askorendako oso hunkigarria izan zen danborradak bere kideetako bati, Yerai Lanz Azpilikueta egindako omenaldia. Igandean Aldabako ermita lakuntzarren topaleku bihurtu zen atzera ere. Piperropil lehiaketa, berriz, Jesus Mozok irabazi zuen.



San Sebastian Olatzagutian

Portuko kalean meza eta arrosarioa izan ziren domekan. Ondoren auzatea eta txokolate-jana. Ospakizuna frontoiko iluntzeko auzatearekin bukatu zen.

Egun ederra pasa zuten sanantondar dorrobarrek

Sanantondar dorrobarrak larunbatean 09:00etako mezan elkartu ziren. Ondoren Agustin Lizarraga priorearen etxean hildako kofradeen aldeko erresponstua egin zuten. Itur-aldea elkartearen gosaldia eta bazkaldu zuten. 21 kofradeetatik 19 izan ziren mahaiaren bueltan elkartu zirenak.

Kofradiaren ardura eskuz aldatu zuten, zozketa bidez: Francisco Lizarraga Senar. 2020an ilbeltzaren 18an ospatuko dute San Anton eta priorearen ardura da 15 egun lehenago apaizarekin hitz egitea eta 13ko mezan ospakizunaren berri emateko. Gainera, herrian bizi ez diren kofradeei hots egin beharko die.



San Anton kofradiaren eguna ospatu zen

Elizkizunean elkartu ziren Bakaikuko sanantondarrak. 92 kofrade dira gaur egun, joan den urtean bezala, ez baita ez altarik ez bajarik egon. Horiek akta liburuan (1857koa, beste bat 1716koa) jasotzeaz eta ospakizuna antolatzeaz Iñaki Saez de Adana

maiordomoa eta Roberto Ramos beleroa arduratu ziren. Aurrenak bigarrenaren eskutan utzi zuen ardura larunbatean eta belero berria Mario Gastaminza da. Egiteko guztien ondoren, Bakarrekoez elkartean bazkaltzera 52 kofrade elkartu ziren.

Sanantondarrak bildu ziren

Iturmendin San Anton kofradia domekako mezan elkartu ziren 25 kofradeak. Pedro Mari Eskisabel banderaduna kofradiaren estandartea eraman zuen. Kofradian baja bat izan da: Andres Gabirondo; eta bi alta: Martin Gabirondo eta Pablo Eskisabel. Urteko kontuak egin ondoren Aritzaga elkartearen bazkaltzera joan ziren kofradeak.



Sanantondarren biltzarra

Urdiaingo San Anton kofradiako 44 kideak larunbatean elkartu ziren. Hildako kofradeen aldeko mezaren ondoren, apaizak eliz atetik bedeinkapena egin eta kofradiaren abestia kantatu zuten. Elizakoak despeditua Tintinitturi elkartearen gosaldia zuten.

Batzarrean karguak berritu zituzten: Cesar Goikoetxearen eta Jose Aldazen ordeiz Imanol Goikoetxea eta Valentin Flores dira. Bi baja izan ziren 2018an: Luzio Zubiria eta Martin Goikoetxea. Aitziber elkarteak 35 kofraderekin bazkaria hartu zuen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 25

ALTSASU Gazte agenda. Ping pong txapelketa.
17:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Venezuela aurrera. Kolpisten aurrean... Euskal Herria iraultza bolivariarekin kontzentrazioa.
18:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN La venganza de los olvidados liburuaren aurkezpena Aritz Bergara egilearekin.
18:30ean, Pikuxarren.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ALTSASU Ines Bengoa ipuin-kontalariak Karabi karaba ipuina kontatuko du.
19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uhartarakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Julieta es el antzezlaren emanaldia.
Atikus antzerki konpainia.
20:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Sobre ruedas filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Tokan2 La Polla La Polla Records taldeari tributua.
23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 26

ETXARRI ARANATZ AHTrik EZ! Soziala bai! gune informatiboa.

Goiz eta arratsalde, plazan.

ALTSASU Extremadurako dantza eta musika jardunaldiak. La Encina elkarteak antolatuta.
09:30ean, La Encinan.

ALTSASU AHT Mendi martxa.
10:00etan, gaztetxean.

ARBIZU Txomin Flores ongi etorria. Hitzaldia: *Euskal iheslari politikoen ibilbidea gaur egungo egoera eta bizipen pertsonalak.* Ondoren, kantuz bazkaria eta omenaldia.
12:00etatik, udaletxean.

ALTSASU Euskal Herriko Mus Txapelketa.
16:00etan, Akelarre tabernan.

UHARTE ARAKIL Autogestion cotidiana de la salud liburuaren aurkezpena. Ainhoa Ezeiza eta Javier Encinarekin.
16:30ean, udaletxeko alhondegian.

ALTSASU Gazte agenda. Pizzapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Tarima Beltza antzerki taldearen *Madres y pasotas.*
19:30ean, lortian.

IRURTZUN Pintxopote musikatua *Iluntze* akustikoa taldearekin. IAGA.
18:00ean, Larrazpin.

IGANDEA 27

ALTSASU Extremadurako dantza eta musika jardunaldiak. La Encina elkarteak antolatuta.
09:30ean, La Encinan.

ALTSASU Gazte agenda. Proiektzioa.
18:00etan, Intxostiapunta.

ALTSASU Stubby, un heroe especial haurrentako filma.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Pumori, mendiaren alaba.
18:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Sobre ruedas filma.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU El Reverendo filma.
19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 28

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sasoi eta Nafarroako Pentsionistak Martxan.
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 30

ETXARRI ARANATZ Sakanan greba feminista prestatzeko batzar irekia.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Azken arnasa arte filmaren proiektzioa eta *Amaren etxea* liburuaren aurkezpena.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Pumori, mendiaren alaba dokumentala.
20:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 31

ALTSASU Tiempo despues filma.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Black is beltza filma.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Aldaketarako tresnaren eredu. Pentsioak hitzaldia emanen dute Idoia Villanuevak eta Bonaventura Bordas Carne.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.



ALTSASU Ezkaba 1938-2018 erakusketa. Urtarrilaren 27ra arte. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ALTSASU Motxila etorkizunez bete erakusketa. Sare-k antolatuta. Urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra. Astelehenetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Ametz Artieda
ZORIONAK AMETS!!
Azkenean 18ak iritsi dira eta zu bizitzeko prest. Disfruta mutil!! Askok Maite Zaitugu




Maite
Zure amonak Argentinatik zoriontzen zaitu!!




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 25




Larunbata, 26



Igandea, 26



Astelehena, 27



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

ALTZARIAK

SALGAI

Sofa-oheta SALGAI. Gutxi erabilia, oso egoera onean dago. (www.guaixe.eus/iragarkiak web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

LANA

LAN ESKAINTZA

Nafarroako Topagunea. Oinarriko eskakizunak: Euskara ongi menperatzea, gidabaimena eta autoa edukitzea, ofimati-ka eta teknologia berriak menperatzea, komunikaziorako gaitasuna izatea. Curriculumak bidaltzeko epea urtarrilaren 29an, 14:00etan bukatuko da. Posta elektronikoz bidali behar dira: oskar@topagunea.eus helbidera.

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD Altsasuko gazte txeearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialeretan gazteewood profilean.

OHARRAK

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzeko dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkuntzako ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

Odol-emateak Etxarri Arantz: Ilbeldaren 23an, 17:00etatik 20:30tara, www.adona.es/eu

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 069 0 024 878, Rural kutxa 3008 0001 16 07 002 791 28 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabx) telefonotara hots egin dezatela

Josefina Arregui kliniko bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: http://goiteo.org/project/zu-gabe-ezin

www.iragarkilaburrak.eus

ESKELA



Ramon Romero Piñas



Gozamina izan da zu ezagutzea eta zure laguna izatea.

Lagunak eta koadrila

ESKELA



Ramon Romero Piñas

Laister arte Ramon. Aralarretik barna belaixen elkartuko gattuk berriz.

1969ko Lakuntzako kintoak

OROIGARRIA

Franziz Arregi Mujika

I. urteurrena

Ez da erraza baloratzea Pertsona baten tamaina Gauza txikiak egiten dute txikia handi alajaina doinu politikak hizketa ederrak ta gaztain erre usaina Franziz maitea balio zendun Gizon haundi askok haina

Bestalden zure falta somatzen dugu

A.A eta Mm.A



OROIGARRIA

Jose M^a Martínez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla

Gukin betiko yonko zarie.

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

OROIGARRIA



OROIGARRIA

Jesus Mari Jaka eta Xabino Garmendia

Zuek biyok beti gukin

Etxarri Aranazko 69ko kintuek



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Laira Perez de Villarreal Butucea,** ilbeldaren 3an Urdiainen
- **Zuhaitz Martinez de Albeniz Lakuntza,** ilbeldaren 11n Altsasun
- **Sheila Vaz Dos Santos,** ilbeldaren 11n Altsasun
- **Ekain Goikoetxea Razkin,** ilbeldaren 13an Altsasun

EZKONTZAK

- **Andrea Galbete Razkin eta Gorka Acebes Lasa,** ilbeldaren 22an Olaztin

HERIOTZAK

- **Celedonia Satrustegi Iregi,** ilbeldaren 15ean Etxarri Aranatzen
- **Adriano Jimenez Garcia,** ilbeldaren 15ean Altsasun
- **Ignacio Andueza Vicondo,** ilbeldaren 15ean Altsasun
- **Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa,** ilbeldaren 18an Lakuntzan
- **Ramon Romero Piñas,** ilbeldaren 22an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa
(Lakuntzako zinegotzi ohia)

"Eskerrik asko Lakuntzari emandako guztiagatik"



LAKUNTZAKO UDALA

ESKELA



Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa
(Lakuntzako zinegotzi ohia)

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak...



LAKUNTZAKO UDALA
Kultur Batzardea

ESKELA

Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa
-2019ko ilbeltzaren 18an hil zen, 67 urte zituela-

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan berarekin eta familiarekin egon zareten guztiei



Mikelanekuek Lakuntza

ESKELA

Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa

Nun habil, zein lekutan
Mikelaneko aittune
Haundi mendiko larretan
Muerdiko zelaietan
Longaseko parajetan



Lakuntzako hire lagunak

ESKELA



Joxe Ramon Lopetegi Ramon Romero

"Beti guukin yonko zaie"

Lakuntzako abeltzainak

ESKELA



Joxe Ramon Lopetegi Ramon Romero

"Utzi pentsatzen berriz elkartuko garela iraganeko egunak itzuli ahal direla"

Sakanako abeltzainak

ESKELA



Joxe Ramon Lopetegi Bakaikoa Ramon Romero Piñas

"Izan zaretenagatik eta erakutsi diguzuenagatik ez zaituztegu inoiz ahaztuko"

Palacios-Iruñuela familia
Lakuntza




IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Nafarroako 16 eta 19 urtez azpiko selekzioak. NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Xotako jokalaririk Nafarroako selekzioan

ARETO FUTBOLA 16 eta 19 urtez azpiko Espainiako selekzio autonomikoen arteko Txapelketa jokatzeko ari da Mazarronen (Murtzia) eta Nafarroako selekzioetarako Xotako hainbat jokalaririk konbokatuta dituzte bertan aritzeko

Ilbeltzaren 23an hasi eta ilbeltzaren 27an, igandean despedituko da 16 urtez azpiko eta 19 urtez azpiko Espainiako selekzio autonomikoen arteko Txapelketa. Murtziako Mazarronen jokatzeko ari da eta Nafarroako selekzioan aritzeko Xota klubeko hainbat jokalaririk deitu dituzte.

Xotako 6 jokalaririk konbokatuta

16 urtez azpiko Nafarroako areto futbol selekzioetarako Jose Migel Fernandez selekzionatzaileak

12 jokalaririk konbokatuta ditu, tartean Xota klubeko hiru jokalaririk: Ion Cerviño, Aimar Garro eta Oihan Sanchez. Eta 19 urtez azpiko Nafarroako areto futbol selekzioan Francisco Javier Egea selekzionatzaileak konbokatuta dituen 12 jokalaririk artean Xotako hiru daude: Mikel Rekalde, Eneko Morgado eta Iñigo Fernandez.

Asteazkenean 19 urtez azpiko txapelketan Nafarroak Ceuta izan zuen aurkari eta 7 eta 2

gailendu ziren nafarrak. Atzo 16 urtez azpian Region Murciaren kontra aritzeko zen Nafarroa eta gaur Ceuta izango du aurkari. 19 urtez azpikoan gaur Nafarroa Errioxaren kontra lehiatuko da.

Larunbatean 16 urtez azpian Nafarroa Kanariar irlen kontra lehiatuko da eta 19 urtez azpian berdin, Nafarroa Kanariar irlen kontra. Bukatzeko, igandean Murciaren kontra lehiatuko da Nafarroa 19 urtez azpian.

Osasuna Magnak Palma Futsalen kontra jokatzeko du

ARETO FUTBOLA Cartagenaren kontra ederki sufrituta irabazi zuten berdeek eta gaur Palma Futsal dute aurkari

Osasuna Magnak Cartagena taldea hartu zuen ostiralean Anaitasunan. Partida oso lehiatua izan zen, eta Imanol Arregiren taldeak sufritu behar izan zuen baina, azkenean, garaipen ederra lortu zuen (4 eta 2). Hiru puntuak poltsikoratzeko izugarritzko lana egin behar izan zuten berdeek.

Osasuna Magnako Rafa Usinek gola sartzea lortu zuen 12. minutuan. 5 minutu beranduago berdintzea lortu zuen Cartagenak. Baina talde berdeak ez zuen behera egin, erasoan jarraitu

zuen eta bigarrena sartu zuen Alex Dizek, atsedendia baino lehen.

Bigarren zatian erasoan jarraitu zuten berdeek. Baita Cartagenakoek ere. Bynhok Osasuna Magnaren hirugarrena sartu zuen, baina minutu bat beranduago bigarrena lortu zuten Cartagenakoek, markagailuan gerturatuz. Handik gutxira, Dani Saldisek berdeen laugarrena sartu zuen. Bukaeran, atezain-jokalaririk formula erabiltzea erabaki zuen Cartagenak, baina estrategia ez zitzaion ongi atera

eta markagailua ez zen mugitu: 4 eta 2 gailendu ziren nafarrak.

“Sufritutako garaipena da, baina justua” nabarmendu zuen partida bukaeran Imanol Arregi entrenatzaileak. “Partida gogorra izan da eta bagenekien bukaerara arte sufrituko genuela. Lan eta esfortzu handiko garaipena izan da gurea, baina garaipen justua” gaineratu zuen.

Hurrena, Palma Futsal

Sailkapen orokorrean Barça Lassa da liderra (45 puntu) eta Osasuna Magna bosgarrena da (37 puntu). Gaur, ostiralean, 38 punturekin sailkapenean laugarrena den Palma Futsal izango du aurkari Osasuna Magnak, 20:30ean, Palman. Laugarren postua lortzea da jokoan dagoena eta ea berdeek sailkapenean gora egitea lortzen duten.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN BENJAMINAK URDIAINEN

10:00	Altsasu B - Urdiain
10:50	Altsasu C - Etxarri Aranatz A
11:40	Sutegi 1 - Etxarri Aranatz 1
12:30	Sutegi A - Aralar Mendi 1
13:20	Altsasu A - Aralar Mendi A

Sakanako Futbol Topaketak:

igandean benjaminak Urdiainen

Igandean Sakanako Futbol Topaketetako benjaminen 5. jardunaldia jokatzeko da Urdiainen goizeko 10:00etatik aurrera. Guztira bost partida dira jokatzeko direnak. Kimuek atsedena hartuko dute Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidetu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Futboleko ongi pasatzea da asmoa.

ELOMENDI TXAPELKETA

12. JARDUNALDIKO EMAITZA

Ageri - Zaldua 0-2

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1	Zaldua	28
2	Elomendi	25

PARTIDUAK

Zalduak atsedeen jardunaldia du

Zalduak lider jarraitzen du

Arakilgo Zalduak 0 eta 2 irabazi zion Ageri taldeari asteburuan. Horrela, Arakilgo taldeak lider jarraitzen du (28 puntu) eta hiru puntu ateratzen dizkio Elomendi bigarrenari eta lau puntu Bidezarra hirugarrenari. Asteburuan atsedeen jardunaldia du.

EMAKUM. ERREGIONALA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA

Zarramonza - Altsasu 3-0

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna Fundazioa	49
12	Altsasu	16

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:00 Altsasu - Lourdes (Dantzalekun)

Zarramonzaren kontra ezin

Asteburuan Zarramonzaren kontra aritu ziren Altsasuko neskek eta ezin izan zituzten jokoan zeuden 3 puntuak bildu, 3 eta 0 galdu baitzuten. Bihar Altsasuk sailkapenean azkena den Lourdes taldea hartuko du Dantzalekun.

FUTBOL PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - San Jorge 0-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	30
9	Etxarri Aranatz	22

PARTIDUA

IGANDEAN

16:15 Etxarri - Doneztebe (San Donato)

Etxarriren garaipen garrantzitsua

Etxarriren eta San Jorgeren partida oso lehiatua izan zen. Kontrakoa ederki presionatu zuten biek. Kontrakoen akatsez baliatuta, Saez de Asteasuk eta Goikoetxeak gol bana sartu zuten eta markagailua ez zen gehiago mugitu.

FUTBOL ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA

Salesianos - Lagun Artea 0-4

Altsasu - Liceo Monjardin 0-5

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagun Artea	42
4	Altsasu	31

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:30 San Ignacio - Altsasu (NUP)

IGANDEAN

16:00 L. Monjardin - Lagun Artea (S. Jorge)

Derbiko puntuak Lakuntzan

Lagun Arteak 0 eta 4 irabazi zion Salesianos taldeari Ollok, Alegriak, Unanuak eta Ansorenak sartutako golei esker; lider jarraitzen dute lakuntzarrek. Dantzalekun, Altsasu ere jaun eta jabe izan zen. 5 eta 0 irabazi zion Liceo Monjardini, Ormazabalek, Mendiak, Leonek, Claverrek eta Lobok sartutako golei esker. Bikain dabilta gure taldeak.





Sakanako Pilota Txapelketako finalista guztiak, sari ematean UTZITAKOIA

Hauek dira Sakanako pilotaririk onenak

PILOTA Aurreko ostiralean XXXI. Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Arbizon eta Lakuntzan eta ondoren sari ematea Lakuntzan egin zen. Guztira 13 final jokatu ziren eta nagusietan Murgiondo eta Petriati izan ziren txapelak.

Sakanako klubetan trebatzen dabilen 100 pilotari pasatxok hartu zuten parte XXXI. Sakanako Pilota Txapelketan, ondoko klubetakoak: Olaztiko Sute-gi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Arbizonko Aldabide, Lakuntza eta Irurtzun. Txapelketarekin, gure klubetan trebatzen diren pilo-

tarietxapelketetan aritzea ahalbidertu nahi zaie. Ostiralean jokatu ziren finalak, Arbizon eta Lakuntzan, 13 final guztira. Lehia biziak izan ziren pilotarietxapelketetakoak, estuak, zaletasuna sortzen dutenak.

Lehenengoz emakumezkoak aritu ziren txapelketan, bi kategorietan: kimuak eta kadeteak.

Horregatik pozik zeuden antolatzaileak, aipatutako 6 klubak. Sakanako Txapelketarekin gure bailaran pilota sustatzen jarraitu nahi dute, baita emakumezkoen pilota ere.

Nagusien mailan Murgiondok eta Petriatik (Irurtzun-Gure Pilota) 22 eta 13 irabazi zieten Ansotegiri eta Berazari (Gure

Pilota Irurtzun) eta emakumezkoetan, kadeteen mailan, Udane Bergarak 18 eta 6 irabazi zion Naroa Agirreri. Bukaeran, Lakuntzako Behar Zana frontoian egin zen sari ematea. Tartean

zeuden klub antolatzaileetako ordezkariak, Nafarroako Pilota Federazioko presidente Miguel Pozueta, Aspeko Adur Lasa pilotaria eta Jorge Nagore pilotari ohia, besteak beste.

XXXI. Sakanako Txapelketako finalak

Aurreko ostiralean XXXI. Sakanako Txapelketako finalak jokatu ziren Arbizon eta Lakuntzan. Ondoren Lakuntzako pilotalekuak hartu zuen sari ematea.

Arbizon

- **Txikiak:** Lizaso-Beloki (Irurtzun) 18 / Etxeberria anaiak (Irurtzun) 7
- **Umeak 2:** Lizarraga-Mitxelena (Pilotajauku) 14 / Beloki-Gorraiz (Irurtzun) 18
- **Kimuak 2:** Nagore-Escudero (Irurtzun) 18 / Beraza-Enaitz (Aldabide-Gure Pilota) 16
- **Haurrak 2:** Garmendia-Amado (Aldabide) 18 / Lizarraga-Razkin (Aldabide) 5
- **Kadeteak neska:** Udane Bergara (Pilotajauku) 18 / Naroa Agirre (Pilotajauku) 6
- **Kadeteak 1:** Mikel Imaz (Aldabide) 15 / Ioritz Gorrotxategi (Aldabide) 18
- **Gazteak:** Lima-A. Araña (Irurtzun) 18 / Araña-Berastegi (Irurtzun) 16

Lakuntzan

- **Umeak 1:** Lizarraga-Etxeberria (Irurtzun) 17 / Xabier-Oihan (Aldabide) 18
- **Kimuak 1:** Igoa-Okiñena (Irurtzun) 18 / Izagirre-Zabala (Aldabide) 4
- **Kimuak neska:** Vergara-Izquierdo (Pilotajauku) 13 / Sanzolanza (Pilotajauku) 18
- **Haurrak 1:** Baztarrika-Lakuntza (Aldabide) 18 / Imaz-Ortiz (Irurtzun) 3
- **Kadeteak 2:** Remiro-Ezkurra (Aldabide) 18 / Arraiza-Cidoncha (Sutegi) 10
- **Nagusia:** Ansotegi-Beraza (Gure Pilota-Irurtzun) 13 / Murgiondo-Petriati (Irurtzun-Gure Pilota) 22

XXI. Iñigo Aritza Pilota Txapelketa: finalak jokoan

PILOTA Igandean, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuak hartuko ditu ikastolako txapelketako finalak

Igandean XXI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketa despidituko da. 5 jardunaldiko ligaxka jokatu eta gero, final handiak dira etzi jokatu direnak, Altsasuko Burunda pilotalekuan, 17:00etan.

Aipatu txapelketarekin, etxeko txiki eta gaztetxoengan eskual pilotari sustatu nahi du ikastolak. Klaseetan ere pilota lantzen dute. Txapelketan 34 mutilek eta 16 neskek hartu dute parte, eta finenak txapelketako azken txanparako sailkatu dira, final handietarako.



Txapelketan, pilotaka. IÑIGO ARITZA

XXI. Iñigo Aritza txapelketako finalak

Ikastolako txapelketako finalak Igandean jokatu dira, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

Benjaminak

- **LH3:** Egoi Urtasun – Ekhi Azpilikueta
- **LH3:** Juna Mendia – Anitz Anda
- **LH4:** Urko Lanza – Harri Mitxelena

Kimuak

- **LH5:** Asier Zubiria – Mikel Arrizabalaga
- **LH6:** Oier Carabias – Aimar Igoa
- **LH6:** Alaitz Lanza – Iraide Vergara

Haurrak

- **DBH1:** Oier Mitxelena – Patxi Azpeitia
- **DBH2:** Iker Agudelo – Aimar Gracia


Kadeteak

- **DBH3, mistoa:** Udane Vergara-Arkaitz Agirretxe / Irati Lumberras – Aritz Ulaiar

PILOTA Ansa ezin izan zuen Zangozako lau t'erdiko finala irabazi

Larunbatean Zangozako Lau t'erdiko Txapelketako finalak jokatu ziren, kimuen, haurren, kadeteen eta seniorren mailetan, Zangozako pilotalekuan.

Seniorretan, Oberena klubean dabilen Ansa altsasuarrak jokatu zuen finala, Zugarralde klubeko Mugioren kontra. Partida ikusgarria izan zen, oso lehiatua, eta bi pilotariak pare pare aritu ziren. 18ko berdinetak zabal-zabalik utzi zuen finala, baina azkenean, tamalez, txapela ez zen Altsasura etorri, Mugioren 22 eta 20 irabazi ziolako Ansari. Txapelketa bikaina egin eta gero, Zangozako Lau t'erdiko txapelketaren dugu Ansa altsasuarra.



Irribarria eta Zabaleta txapelketa bikaina egiten ari dira. 6 puntu dituzte, finalerdietara pasatzeko aukera askorekin. ASPE

Ezkurdiak eta Martijak 3 puntu eta Zabaletak 6

PILOTA Binakako Txapelketako 10. jardunaldian Ezkurdiak-Galarzak Elezkano II.a-Rezusta izango dituzte aurkari gaur Hendaian eta igandean Altuna III.a-Martija Irribarria-Zabaletaren kontra ariko dira, Tolosan

Ostiralean Binakako ligaxkako azken postuetan zeuden bi bikoen partida hartu zuen Mungiak: Ezkurdiak eta Galarzak Urruti-koetxea ordezkatu zuen Laso eta Aretxabaleta izan zituzten aurkari. Baikokoak 4 eta 11 arreratu ziren, baina Galarzak jokoa hobetu zuen, Ezkurdiak aurreko koadroetan gailentzen hasi zen eta sekulako lana eginez markagailuari buelta ematea lortu zuten Aspekoeak, Baikokoen akatsez lagunduta: 17ra berdindu eta gero, zuzenean joan ziren 22 eta 18raino. Horrela, izugarriko balioa zuen garaipena lortu zuten Ezkurdiak eta Galarzak, hirugarren puntu lortzea eta txapelketagatik lehiazten jarraitzea ahalbideratu diena.

Larunbatean Altuna III.a eta Martija Olaizola II.a eta Albisuren kontra aritu ziren Bilbon. Olaizola II.a eta Albisu jaun eta jabe izan ziren. Ez zen Altunaren eguna izan; gipuzkoarrari ez zitzaion ezer atera. Albisuk izugarri jo zuen eta Martija, erre-

botetik ezin atera ibili zen, ahal zuen moduan erantzuten. Azkenean Olaizola II.a eta Albisuk 9 tantotan utzi zituzten Altuna eta Martija, eta euren 7. puntu lortu zuten. Altuna III.ak eta Martijak, aldiz, hiru punturekin jarraitzen dute.

Bukatzeko, igandean, Eibarren Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontra aritu ziren Irribarria eta Zabaleta. Aspekoeak sekulako erakustaldia eman zuten: bikain aritu ziren, abiadura eta sekulako indarrarekin mugitu zuten pilota eta jokoz kanpo utzi zituzten Bengoetxea VI.a eta Imaz: sei tantotan utzi zituzten. Euren seigarren puntu lortuta, finalerdietara sailkatzeko bide zu-

**IGANDEAN MARTIJA
ETA ZABALETA
ARAKILDARRAK
ELKARREN KONTRA
ARIKO DIRA, TOLOSAN**

zenez daude Irribarria eta Zabaleta.

Puntuazioa

Binakako ligaxkako sailkapenean, 7 puntu dituzte Elezkano II.a-Rezustak eta Olaizola II.a-Albisuk eta 6 puntu Irribarria-Zabaletak. Artola eta Mariezkurrenak 5 puntu dituzte eta hiru punturekin 3 bikote daude: Ezkurdiak-Galarza, Altuna III.a-Martija eta Bengoetxea VI.a-Imaz. Azkenik, Urrutikoetxeak eta Imazek 2 puntu dituzte.

10. jardunaldian datorrena

Gaur, ostiralean Ezkurdiak eta Galarzak Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra jokatu dute Hendaian. Larunbatean, Labriten, Olaizola II.a eta Albisuk Bengoetxea eta Imaz izanen dituzte aurkari eta Markinan, Urrutikoetxeak eta Aretxabaleak Artola eta Mariezkurrena. Igandean, Tolosan, Altuna III.ak eta Martijak, Irribarria eta Zabaleta izanen dituzte aurkari.



Topaketan parte hartu zutenetako borrokalari batzuk, sakandarrak tartean. UTZITAKOA

Sakandarrak Baionako Emono Dan Tai Sen Topaketetan

YOSEIKAN BUDO Amets taldeak antolatutako topaketan 20 borrokalari sakandar inguruk hartu zuten parte

Amets Euskal Herriko yoseikan budo taldeak topaketa berezia antolatu zuen Baionan, Euskal Herriko II. Emono Dan Tai Sen Topaketak hain zuzen ere. Txiki eta helduendako taldekako armen edo makilen borroka izan ziren Baionan jokatuak. Zehazki, 3 borrokalari osatutako bi taldek 3 minutuz lehiatu behar zuten, eta helburua makilekin 15 ukitze egitea zen.

Txapelketan Euskal Herriko Amets yoseikan budo taldeko kide diren EHko klubek hartu zuten parte, tartean Etxarri Aranazko eta Altsasuko Txuixoo

taldeek. Guztira Sakanatik 20 borrokalari gerturatu ziren eta guztiek, ongi pasatzeaz gain, topaketako oroigarriak jaso zituzten.

Sakandarrekin batera, Hego Euskal Herriko Erandioko, Atarrabiako eta Berriozarko eskolek, eta Iparraldeko Urruña, Baiona, Bidaxune, Kanbo, Izturitze, Pagola, Atharratze eta Mauleko eskolako kideek hartu zuten parte, guztiak Amets yoseikan budo taldeko klubak.

Yoseikan budo Japoniatik datorren arte martziala da, borroka-arte.

Lakuntza-Aralar, Triku Trail eta Uharte-Beriain, EHko Rankingean

MENDI LASTERKETAK 2019ko Euskal Herriko Rankinerako puntuagarriak izango dira Sakanako hiru proba hauek

Euskal Mendizale Federazioak 2019ko Euskal Mendi Federazio-ko Mendiko Lasterketen Rankingerako zein probek puntutuko duten azaldu du, eta puntuagarriak diren 19 proben artean Sakanan jokatu diren hiru daude. Zehazki, ekainaren 9an jokatu den XVI. Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa, ekainaren 30ean Etxarri Aranatzen jokatu den Triku Trail mendi lasterketa eta irailaren 22an jokatu den Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala. Beraz, erakargarriagoak izango dira.



Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala. LUIS



Emakumezkoen podiuma, Maitane Melero gorenean dagoela. UTZITAKOIA

Altsasuko krosa, euripean

ATLETISMOA XXXIII. Altsasuko Krosa jokatu zen igandean Dantzalekun,aldi berean Nafarroako Kros Motza Txapelketa zena. Maitane Melero eta Ivan Acereda izan ziren azkarrenak. Aurretik, NKJko erreleboko lasterketak jokatu ziren

Altsasuko Dantzaleku pistetan jokatu zen, igandean, XXXIII. Altsasuko Krosa, aldi berean Nafarroako Kros Motza Txapelketa izan zena. Dantzaleku Sakana atletismo taldeak antolatutako zuen, Nafarroako Atletismo Federazioaren, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren, Altsasuko Udalararen, Katealderen eta beste hainbat babesleren laguntzarekin. Lohia eta euria izan ziren protagonista, baina proba nagusian 130 gizonezko eta 47 emakumezko izan ziren parte hartzera animatu zirenak, Nafarroatik etor litekeen korrikalari onenak. Euriarengatik Dantzaleku, Basoixi eta Usolarrainen prestatutako zirkuitua oso irristakorra zegoen, zirkuitua gogortu zen eta erorketa dezente egon ziren.

Gizonezkoen proban (4 km) faboritoen artean zegoen Javier

Nagorek ezin izan zuten Altsasura etorri, lesioagatik, baina sekulako partaidetza zegoen, Nafarroako korrikalari onenak. Grupompleo taldeko Ivan Aceredak hasieratik bukaerara dominatu zuten lasterketa. Azkeneko itzulian erorikoa ere izan zuten, baina proba irabaztea lortu zuten (13:48); Nafarroako Kros Motzeko txapeldunak sei segundo atera zizkion Ayrton Azcueri (Ardoi, 13:54) eta 20 segundo Atarratze Beñat Rotari (Hiru Herri, 14:08). Sakandarren artean Ruben Mendieta izan zen onena, helmugan 28.a (15:08).

NAFARROAKO KORRIKALARI ONENAK LEHIATU ZIREN LOKAZTUTA ZEGOEN ALTSASUKO PROBAN

Emakumezkoetan, gripea guztiz gainditu gabe zegoen Maitane Melerok lortu zuten gailentzea proba oso estuan. 47 emakumek hartu zuten irteera, Nafarroako onenak, eta horietatik 41 iritsi ziren helmugara. Maitane Melero, Vanesa Paca, Alicia Arreara, Maider Leoz eta Amaia Melero elkarrekin ibili ziren proba guztian eta azkeneko metroetan erabaki zen lasterketa, esprint estuan. Maitane Melerok (16:08) bi segundo atera zizkion Vanesa Pachari (16:10) eta 6 segundo Alicia Carrerari (16:14). Lehen sakandarra Izaskun Beunza izan zen, helmugan 12.a (17:38).

Taldeka, gizonezkoetan Hiru Herri kluba eta emakumezkoetan Grupompleo gailendu ziren.

Herrikoia Morenoren Ondoren, federatuak ez zirendako 5,2 km-ko Altsasuko kros

herrikoia jokatu zen. Javier Moreno gailendu zen Imanol Oiarbideren eta Iban Sobredoren aurretik, eta emakumezkoetan Teresa Martinez Galar izan zen aritu zen emakume bakarra.

Aurretik, kategoria txikiko erreleboak

Altsasuko Krosa jokatu aurretik, Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliagarriak diren kategoria txikikiko erreleboetako lasterketak jokatu ziren, goizeko 10:30etik aurrera, Dantzalekun. Lauko taldeetan lehiatu ziren korrikalariak. 10 urtez azpian 16 talde aritu ziren eta Hiru Herri B izan zen azkarrena (8:55), Dantzaleku Sakanaren aurretik (9:10). 12 urtez azpiko erreleboetan 20 talderen artean Hiru Herri C gailendu zen (8:10) eta Dantzaleku Sakana laugarrena sartu zen (8:40) eta 14 urtez azpian aritu ziren 12 taldeetatik Hiru Herri Ak irabazi zuen (12:42). 16 urtez azpikoan 10 talde aritu ziren eta Hiru Herri A gailendu zen (11:37). Dantzaleku Sakana 9.a sailkatu zen (13:44). Eta, azkenik, 18 urtez azpikoan erreleboetan aritu ziren 6 taldeen artean Hiru Herri A izan zen azkarrena (18:07) eta Dantzaleku Sakana 6.a sailkatu zen (19:50).

Balorazio positiboa

Dantzaleku Sakana taldearekin antolakuntzan aritu zen Mikel Lakuntzak Beleixe irratan (107.3 FM) azaldu zuenez, ongi joan zen Altsasuko krosa. "Goiz gehiena euripean, hurrekin igual argixeago egon zen, eta alde horretatik neketsuago egin zen lasterketa. Dena den Altsasuko Krosak zerbait berezia du, baso itxian jokatzeko da, toki paregabea, eta korrikalari askok esaten digute hori, ederra dela, baso itxian aritzea faltan botatzen dutela beste probetan. Euriarengatik lokatza zegoen eta irristakorra, eroriko batzuk ere egon ziren, bihurtzekoak eta aldapaxoren bat ere baitzeuden ibilbidean, gustuko dutenek eskertzen dutena" adierazi zuen.

NKJko errelebo probak berrikuntza izan direla gaineratu

AURRETIK NKJETAKO ERRELEBOETAKO LASTERKETAK JOKATU ZIREN DANTZALEKUKO ZIRKUITUAN

zuen Lakuntzak. "Talde mistoak ziren, lau korrikalariz osatutakoak, eta bakoitzak itzuli bat egin behar zuten. Bere berezitasuna du, taldekako karrerak oso politak direlako, taldea baita garrantzitsua, baina badu ere beste alde bat, klubek nahikoa jende ez badute korrikalari batzuk parte hartu gabe geratzen direlako. Guk, Dantzaleku Sakanan, 16 urtetik beherako errelebotan talde bat genuen, baina kide bat gaixotu zen eta gainontzeko hirurak lasterketan aritu gabe geratu behar izan zuten. Eta 14 urtetik azpikoan ere talde bat ezin osatu geratu ginen, neskari ez genuelako. Dena den, adin txikikoak, 10 urtekoak eta korrikan ikustea oso polita da" aipatu zuen.

Nafarroako Kros Motza Txapelketa Nafarroako korrikalari onenak aritu zirela gaineratu zuen Lakuntzak, eta lasterketa bikainak izan zirela. Eta, bukaeran, federatuta ez daudeneko Altsasu herri krosa antolatutako zutela gaineratu zuen "proba federatu gabekoei irekitzeko, Altsasuko krosean aritzeko aukera izan zezaten. Parte-hartzea ez zen oso handia izan, espero genuen, baina aukera hori ematearen alde egin genuen" nabarmendu zuen Lakuntzak. Bukatzeko, Lakuntzak Katealde eta gainontzeko babesleak eskertu zituen, proba aurrera ateratzeko emandako babesarengatik.

Nafarroako Kros Laburra

Altsasuko Krosa, aldi berean, Nafarroako Kros Motza Txapelketa izan zen.

Gizonezkoak

1. Ivan Acereda	13:48
2. Ayrton Azcue	13:54
3. Atarratze Beñat Rota	14:08
28. Ruben Mendieta	15:08
43. Iraitz Senar	15:38

Emakumezkoak

1. Maitane Melero	16:08
2. Vanesa Paca	16:10
3. Alicia Carrera	16:14
12. Izaskun Beunza	17:38
36. Leire Estarriaga	20:03

*Oharra: Sailkapenean ez zen korrikalarien jaioterrikeri ageri; beraz, gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea



2019ko Euskadi Fundazioko taldeak: talde kontinental profesionala, emakumezkoen taldea eta afizionatuak. EUSKADI FUNDAZIOA

2019ko Euskadi Fundazioa aurkeztu dute

TXIRRINDULARITZA Jorge Azanzak jarraitzen du kontinental taldeko zuzendaritza lanetan eta taldeari "aurrera" egiteko garaia heldu zaiola uste du altsasuarrak. Ailetz Lasa eta Eneko Aramendia afizionatuen taldean ariko dira

Aurreko ostegunean 2019ko Euskadi Fundazioa taldearen aurkezpena egin zen Orona fundazioak Hernanin duen egoitzan, Mikel Landa presidentea buru zela. Gizonezkoen kontinental taldea da fundazioak maila gorenean duen taldea, emakumezkoen taldearekin eta 23 urtez azpiko afizionatuekin batera.

Jorge Azanza altsasuarrak jarraitzen du kontinental mailako taldeko zuzendari lanetan. Bere esanetan, taldeari "aurrera" egiteko garaia heldu zaio eta mezu hori eman die bere txirrindulariei. Zuzendariak taldea iaz baino hobeto ikusten du eta taldeak "aurrerapausuak" eman behar dituela, hori da

mezu nagusia. Ilbeltzaren 30ean hasiko du urtea Fundazioak, Mallorcako Challengean. Azanzak 91 eguneko lehiaketa egutegia diseinatu du. 11 txirrindulari ditu bere aginduetara eta aurreko urtetik ona aldaketa franko egon dira: sei txirrindulari utzi dute taldea eta bost berri iritsi dira: Jokin Aranburu eta Unai Cuadrado Ampo Goierrikotik, Dmitri Zhigunov eta Antonio Jesus Soto Lizartekoak eta Sergio Higueta kolonbiarra, Education Firstek utzia ekainera arte. Gainontzeokak Diego Lopez, Mikel Alonso, Gotzon Martin, Peio Goikoetxea, Txomin Juaristi eta Ibai Azurmendi dira. Oso pozik dago

Azanza bere taldearekin eta aurrerapausua ematea, hori da eskatzen diena.

Lasa eta Aramendia Euskadi Laboral Kutxara

Euskadi Fundazioko 23 urtez azpiko taldean bi sakandar ari tuko dira. Batetik, junior mailatik afizionatuetara salto egin duen Ailetz Lasa ziordiarra, Burunda klubean trebatutakoa, eta, bestetik, Rural Kutxa talde afizionatutik datorren Eneko Aramendia iturmendiarra. 20 txirrindularik osatzen dute taldea eta Euskalduna Torneoan eta Espainiako Kopako probetan ahalik eta lan onena egitea izango da euren helburua.



Euskadi fundazioko 23 urtez azpiko taldea. Bertan daude Ailetz Lasa eta Eneko Aramendia. EUSKADI FUNDAZIOA



Nafarroako pista selekzioa, Etxeberriarrak eta Aznar artean. NAFARROAKO FEDERAZIOA

Etxeberria anaiak Espainiako Pista Txirrindularitza Kopan

PISTA TXIRRINDULARITZA Eliteetan Josu laugarrena sailkatu zen eta kadeteetan Martxel hamargarrena

Asteburuan pista txirrindularitza Espainiako Kopako lehen jardunaldia eta Espainia Omnium Txapelketa jokatu ziren Mallorcako Palman. Nafarroako selekzioarekin bi txirrindulari sakandar aritu ziren, Josu eta Martxel Etxeberria anai iturmendiarrak, eta Burunda klubean trebatzen den Unai Aznar Erriberako txirrindularia.

Martxel Etxeberria kadete mailako gizonzkoetan lehiatu zen. Sailkapen orokorrean 10.a sailkatu zen Martxel (8.a Tempon, 8.a kanporaketan eta 10.a pun-

tuazioan). Unai Aznar pistan estreinatu zen eta lan oso txukuna egin zuen Burunda klubeak. Eta Josu Etxeberria lehenengo elite mailan lehiatu zen eta iturmendiarra laugarrena sailkatu zen 23 urtez azpiko Espainiako Pista Kopan eta Espainiako Omnium Txapelketan. Puntuazio proban bikain aritu zen; liderra izan zen probaren tarte handi batean eta, azkenean, bigarrena izan zen.

Taldekako txapelketan Nafarroa Espainiako Pistako Kopako seigarren postuan dago.

CBASK-ek ezin izan zuen Domiberia taldea irabazi


SASKIBALOA 52 eta 60 galdu zuen CBASKek Altsasun lidergoa lortu zuen Domiberia taldearen kontra

Larunbatean etxean jokatu zuen CBASK Altsasuk, sailkapenean bigarrena zen Domiberiaren kontra. Azkenean jokoan zeuden puntuak Altsasutik ihes egin zuten, Domiberiak 52 eta 60 irabazi ziolako CBASK taldeari (52 eta 60).

Horrela, Autonomia Arteko 2. mailako lider berria da Domiberia (21 puntu), eta CBASK zortzigarren postura jaitsi da (16 puntu). Larunbatean Berriozarren jokatu du CBASKek, hirugarrena den Humiclima taldearen kontra, 17:20ean, Berriozarko kiroldegian.



CBASK Altsasu. ARTXIBOA



'Julieta To Da' antzezlanaren une bat. ATKUS TEATRO

Arte eszenikoen bidez baloreak ikasteko proiektua Irurtzunen

Oholtzara salto arte eszenikoen proiektu berritzailea aurkeztu dute. DBHko gazteendako bideratuta dago

IRURTZUN

Arte eszenikoak gazteei hurbildu eta gazteak protagonista bihurtu nahi dituen ekimena da Oholtzara salto. Hortaz, antzerkiaren eta dantzaren bidez genero-indarkeria eta sexu aniztasuna bezalako gaiak jorratuko dituzte gazteek konpainietako kideen laguntzarekin. Nafarroako 27 herrietara iritsiko da Oholtzara salto, baita Sakanara ere: Irurtzunen, Etxarri Aranazten, Olatzagutian eta Altsasun egongo da. Lehenengo emanaldia gaur Irurtzungo kultur etxean izango da. Atikus teatroren *Julieta To Da* gaztelaniazko bertsoaren emanaldia egingo dute 10:00etan eta euskaraz 12:00etan.

Antezlanaren emanaldiaren aurretik konpainietako kideak institutuan egongo dira "lehenengo harreman bat" sortzeko. Lehenengo kontaktu horretan antzerkiaren esperientzia nolako den azaltzen diete. Ondoren, antzezlana ikustera joango dira ikasleak, eta, amaitzeko, akto-reekin solasaldia izango dute. Oholtzara salto proiektuaren antzezlanean nerabezaroan dauden gazteei interesatzen zaizkien gaiak jorratzen dituzte: genero-indarkeria edota sexu-aniztasuna.

Sexu-aniztasuna da, hain zuzen, *Julieta To Da* (gaztelaniaz, *Julieta es EL*) antzezlana. Antzezlana poetiko baten bidez heldutasunera bidean dauden hiru laguneko egoera kontatuko dute. Hiru pertsonetatik bi transexual dira eta hirugarrenaren sexu-

joera ez da ezagutzen. Antzezlana, gaztaroan heterosexual ez zarenen bizitza korapilatzen dela erakutsi nahi du, Atikus teatro konpainiatik azaldu dutenez. Istorio guztia, gainera, poetikotik gutxi duen leku batean gertatzen den: komun publiko bat.

Oholtzara salto Nafarroako Antzoki Sareak antolatu du Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin. Otsailean iritsiko da Dantzabidea ikuskizuna Etxarri Aranatzera, Altsasura eta Olatzagutiara.

Publiko orokorrerako

'Julieta es El' antzezlana izanen da Irurtzungo kultur etxean gaur, 20:30ean, publiko orokorrerako. Oholtzara salto proiektuarekin gazteekin egon ondoren Atikus teatro konpainiako kideek 'Julieta es El' antzezlaren emanaldia eskainiko du berriz ere, kasu honetan gazteendako eta helduendako. Sexu aniztasunaren gaia modu poetikoan erakusten du Atikus teatro konpainiaren antzezlana. Hiru aktoreek parte hartzen dute emanaldian.

"Abestiak sortzeko musa itxoin behar da"

FRAN TENO KANTAUTOREA

Musikaren munduan hogeit hamar urteko ibilbidea egin du Fran Teno musikari irurtzundarrak. 'Numen' single berria kaleratu berri du

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Hainbat taldetan bateria jole bezala hasi zen, eta dagoeneko bere ibilbidea eta musika estilo propioa sortu du. Inspirazioa galtzeari buruz hitz egiten du aurkeztu berri duen *Numen* abestian.

Noiz eta nola hasi zinen musikari bezala?

Musikari bezala duela 20 urte hasi nintzen. Hainbat musika taldeko bateria jolea izan nintzen. Esaterako, 1996an Saraski taldean egon nintzen, eta, gero, Nahi eta nahi ez taldean egon nintzen. Bi talde gehiagotan egon nintzen eta, ondoren, Las Palmasera bizitzera joan nintzen. Han konposatzen hasi nintzen, nire musika sortzen.

Musikari bezala ibilbidea egiteko joan zinen?

Denbora tarte baterako hemendik joateko gogoak nituelako joan nintzen. Baina gauzak zerbaitengatik gertatzen dira, eta han ekoizle bat ezagutu nuen. Nik konposatzen nuen, baina nire abestiak erakustea lotsa ematen zidan. Ekoizle honekin abesti pare bat grabatu nituen eta, zorionez, lehiaketa batera aurkeztu nintzen eta irabazi nuen. Egindako lanak zerbaiterako balio zuela pentsatu nuen. Kanarietan egondako bost urteetan jotzen eta konposatzen nuen. Orduan, abesti pila bat sortu nituen eta Irurtzunerantz itzuli nintzenean diskoa grabatu nuen.

Kantautorea zara. Nolako da zure musika?

Bai. Musika, letra eta dena egiten dut. Rock-a jotzen nuen, eta izugarri gustatzen zait. Baina nire gustuak denetarikoa dira: ACDC, Alejandro Sanz, Mana, Bon Jovi... eta oraintxe Chill out disko bat jarri dut. Orduan, horiek guztiak irabiagailuan sartzen ditut eta ateratzen dena da nire estiloa.

Zertan inspiratzen zara?



Fran Teno musikaria. UTZITAKOA

Sortzea gogo-aldartearen arabera da, eta egunak daude. Bereziki ez dudana egiten da burua derrigortu. Egunero 18:00etan idaztera jarriko naiz ezin dut esan. Musikaren musa etortzeko itxoin behar da. Ateak deitzen duenean gitarra hartu eta sortzen hasi. Zerbait sortu nahi duzunean nabaritzen duzu eta gauzak ateratzen dira.

Urte hauetan zure musika aldatu da?

Aurreko batean 2002. urtean grabatutako maketa bat aurkitu nuen eta entzungaitza da. Lotsa ematen du. Txarra da. Gainera, oso inozoak ginen eta Bartzelonako Vale Music disketxera bidali nuen maketa. Jakina, ez zuten deitu. Bilakaera izan dut, bai.

Zure musika mundutik hedatu duzu.

Mundutik esatea asko da. Estatuan Granadan, Madrilan, Guadalajaran... jo dut. Eta aurreko hilabetean Hego Amerikan egon nintzen eta oso pozik itzuli naiz. Irratietan eta telebistetan jotzen aritu naiz, eta oso gustura.

Hasi zinenean horrelako zerbait espero zenuen?

Amerikara joateko ilusioa nukan. Eta, azkenean, gauzak amesten eta desiratzen dituzu-

nean, denborarekin eta lanarekin egi bihurtzen dira. Hegazkinean nengonean mapa ikusten zen eta Atlantikoaren gainean nengoela ikustean, ezin nuen sinistu.

Single berria aurkeztu duzu.

Numen deitzen da. *Numen* hitzak inspirazioa esan nahi du. Artistaren musa da. Abestiak horri buruz hitz egiten du; inspirazioa galtzearen beldurraz.

Noizbait beldur hori izan duzu?

Paradoxa bat da. Gitarrarekin nengoen eta pentsatu nuen oso zaila izan behar dela sormena galtzea. Horrela hasi nintzen. Datorren hilabetean Bartzelonara itzuliko naiz beste single bat egitera.

Diskoa grabatuko duzu?

Orain hobe da singleak ateratzea. Diskoa grabatzeko estudioa kontratatatu behar duzu, diru asko gastatzen duzu eta gero jendeak gustatzen zaion abestia deskargatzen du bakarrik.

Zuzenekoak nahiago dituzu?

Abestiak grabatzea zuzenean jotzeko aitzakia bat da. Irurtzunen lan berria aurkeztuko duzu?

Etorkizun batean bai.

Osoa: www.guaixe.eus.

"Trikitixa asko landu eta hobetu da"

PATXI AGIRRE TRIKITILARI ARBIZUARRA

Nafarroako V. Trikitixa Jaialdia egingen da bihar, ilbeltzaren 26an, larunbatean, 17:30ean, Burlatako kultur etxean

E. Carreño - E. Ruiz ARBIZU

Bosgarren urtez antolatuko du Nafarroako Trikitixa elkarteak Nafarroako Trikitixa Jaialdia. Burlatako kultur etxean izanen da emanaldia, 17:30etik aurrera. Patxi Agirre trikitilari arbizuarra antolatzaileetako bat da.

Zergatik Burlatan?

Nire asmoa bi urtetik behin Altsasun egitea zen. Niretako garrantzia handia dauka Sakanan egitea trikitilariaren mundua Sakanatik sartu zelako Nafarroan. Orduan, zerbaitek esaten zidan hemen egin behar nuela. Baina aurten udaletxean hainbat desadostasun egon omen dira. Leitza, Burlata eta Barañain neuzkan buruan. Burlatan prest zeuden.

Esertzekoa da laguntza izatea.

Duela 30 bat urte trikitixaren mundu honekin hasi nintzenetik jo ditudan ate guztiak ireki dizkirate. Oso pozgarria da.

Zenbat trikitixa eskola daude Nafarroan?



Patxi Agirre trikitilariak. ARTXIBOIA

Iruñean zazpi bat eskola daude eta Nafarroan ehundik gora.

Beraz, trikitixa eskolak bizirik daude. Orain daukagun borroka, Gipuzkoan nahiko barneratuta dagoena, trikitixa ikasketak musika eskoletan sartzea da. Ez

dut ulertzen zergatik ez duten nahi. Zenbaki bidez askoz errazago ikasten da trikitixa. Baina bata bestearekin ez du talka egiten. Lagungarriak izan daitezke.

Zertan aldatu da trikitixaren mundua?

Materialak asko aldatu dira. Eta trikitixa taldeetan sartu da eta bultzada handia izan du. Askok landu eta hobetu da. Hamaika lan egin daitezke horri buruz, baina behar dugu jende gaztea horretarako.

Aurtengo jaialdian denetarik dago.

Jaialdi ezberdina da. Norberak daukan hoberena ateratzen du. Honako trikitilari hauek egonen dira: Xabi Aburruzaga, Koldo Uriarte eta Aitor Uribarri; Loren Nuñez eta Jesus Velasco; Roberto eta Miren Etxebarria; Leturia, Motriku eta Imanol; Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea eta Julen Alonso; Koldo Iparragirre eta Iñaki Larrañaga, eta Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña.



BAZTERRETIK

JUNKAR LOPEZ-MUGARTZA

Justiziak bidegabeki zigortu zituenen alde

Eguzkiak ez du oraindik iazko elurra urtu eta oraindik aurtengoa bota ez duelarik izotza eta oinazea berrestu eta zabaldu nahi dute atzera ere gure herrikideen eta familien artean.

Berriz ere, Auzitegiak bere begi bendatuen zirrikitu askoren arteko ikusmiran jarri du Euskal Herriko zortzi seme-alaba gazteen etorkizuna.

Fiskala: Estatuko akusatzailea ez omen zen bere garaian pozik gelditu gazteei ezarri zitzaizen neurritz kanpoko zigorrarekin eta urte gehiago eskatzen ditu... 50 urte nahiko izango ote dira? Gorroto delitua... gorrotoak sortzen duen gose asezina...

Epailea: Epaiketa Gelaren lehendakariak, justizia emaile gorenak, espero bezain ongi bete zuen bere lana. Gürtel kasutik baztertua. Urrezko domina izan zen harentzat. Merituaren Ordena Bereizgarri Zuriarekin. Espontaneoki eta oparoki kolaboratzeagatik.

Justizia Idazkaria: Preso politikorik ez dago. Gure eskubide estatua sendoa eta irmoa da.

Abokatua: Abokatuen Elkarte Librearentzat Altsasuko auziaren inguruan itzalak daude, errelato ofizialaren inguruan zalantza-arrastoak sumatzen dira. Inpartziala izateak gezurrik ez esatea suposatzen du, auzipetuen defentsarako garrantzizkoak diren argibideak ez ezkutatzea. Epaiketan irregulartasunak egon dira. Amaiera hasieratik idatzita zegoelako sentipena zegoen.

Gurasoak: Justiziaren esku batean balantza, bestean ezpata. Balantzaren bi plateretan muntaiak eta erabilera. Ezpataren bi aho zorrotzetan gazteen etorkizuna eta senideen oinazea. 800 egun baino gehiago dagoeneko espetxean.

Egun batean eguzkia itzaliko da. Kolapsatuko da eta lurraren gainean eroriko da. Mundu gaixo hau desagertuko da izarren hautsetan. Epaiketa handia. Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak. Haien bereizgarri zuriko urrezko dominak eter mugagabeen galduko dira betiko, espontaneoki eta oparoki, haien gorrotoarekin batera.

Bego pena hau! Itzuliren naiz, bai!, berriz Euskal Herrirat! Bego urte hau! Etorriko naiz betikot zure ondorat...!

Injustiziak eta amorruak sortu duen jota altsasuarra

Kruz Mari Martinez Larrea musikari altsasuarra Altsasuko auziaren inguruko jota bat idatzi du

ALTSASU

"Kaguen sos, esto no es normal". Hau ez da normala. Horrela hasten da Kruz Mari Martinez Larrea musikariak sortu duen jota. Modu "soilean" sortu zuela adierazi du. Jota herritarren adierazpenerako doinua zen, eta Kruz Mari horretaz baliatu da Altsasuko injustiziaren aurrean "jendearen amorrazioa" doinuen bidez adierazteko.

Trasteando musika taldeko zuzendaria da Kruz Mari, eta azkenengo kontzertuan Fermin Valenciaren *Kutxitxi* abestia

interpretatu zuten. Une horretan sortu zitzaion Kruz Mariri jota bat egiteko ideia, "eta amorrua adierazteko bi jota asmatu nituen".

"Jota oso aldarrikatzailea zen eta edozer gauza adierazteko balio zuen". Herritarrak adierazteko modu bat zen. "Gorputzak eskatzen zidan". Gorputzak gertatzen ari denaz abestea eskatzen zion. Hortaz, gitarra hartu eta entsegu tokira joan zen. Orduan sortu zen Altsasukoen aldeko jota. Duela gutxi amaitu zuen jota, estribilloa gehitu ondoren.

Sortutako jota Altsasuko auzia ezagutarazteko eta haren inguruan adierazteko kanal "desberdin" bat eskaintzen duela adierazi du Kruz Marik. Baita "zentzugarri hau" aldarrikatzeko beste modu bat eskaintzen du ere. "Jende helduendako eroso da jota bat entzutea". Jendeak gogoz entzuten duela azaldu du Kruz Marik.

Etxean modu "soilean" sortutako abestia da Kruz Marik sortu duen jota, aldiz, musikaria "harrituta" dagoela aitortu du, izan ere, jota Hego Ameriketara iritsi dela esan du. Ez da Kruz Marik sortzen duen lehenengo pieza. Konpositore bezala Kruz Marik Altsasuko zortzikoa eta beste hainbat herri abestiak sortu ditu, baita Iortia Turrillaren musikarekin sortutako beste pieza bat.



Idazlearekin solasaldia

Miren Agur Meabe idazlea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten Itsasi euskaltegiko ikasleek eta Sakanako mintzakideek asteazkenean, ilbeltzaren 23an. Meaberen iritzi, garrantzitsua da idazlearen "lanak sozializatzea": "liburu baten kanpoan gauza asko gelditzen dira". Urtero solasaldiak antolatzen dituzte Mank-ek, euskaltegiak eta Mintzakideek.

Karasatorrek Bertsolari Txapelketan jokatu du

Aurreko asteburuan Nafarroako Bertsolari Txapelketarako bi aurre-kanporaketa jokatu ziren Iruñean eta Irunberrin. Saats Karasatorre hirugarren sailkatu zen, eta Txapelketarako txartela lortu zuen. Idoia Granizo gertu gelditu zen

ETXARRI ARANATZ - ALTSASU

Nafarroako Bertsolari Txapelketa otsailaren 9an hasiko da. Bihar, ilbeltzaren 26an, aurkeztuko dute, baina aurretik txapelketan arituko diren zerrenda osatu zuten aurreko asteburuan, ostiralean eta larunbatean, egindako bi aurre-kanporaketetan. Sei bertsolari sailkatu ziren: aurre-kanporaketa bakoitzaren txapeldunak zuzenean sailkatu ziren, eta beste lauak puntuen arabera lortu zuten txartela. Hortaz, hirugarren sailkatua Saats Karasatorre etxarriarra izan zen. Idoia Granizo altsasuarra zortzigarren gelditu zen, Txapelketatik gertu.

Lehen aldiz Txapelketa batean parte hartzen zuten bertsolariak alde batetik, eta duela bi urteko txapelketan azken sei sailkatuak bestetik, bi aurre-kanporaketa egin ziren aurreko asteburuan. Lehenengoa Iruñeko Txantrea auzoko Auzitegian jokatu zen, eta Idoia Granizo altsasuarra aritu zen. Bigarrena, Irunberriko Gizarte etxean izan zen, eta Irunberrin Saats Karasatorre etxarriarra egon zen. Aurre-kanporaketan parte hartu zuten hamabi bertsolarietatik, seik lortuko zuten Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzeko txartela.

Karasatorre sailkatua

Lortutako puntuen arabera Saats Karasatorre hirugarren sailkatua izan zen, bai jokaturako aurre-kanporaketan bai sailkapen ofizialean ere. Hortaz, Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartuko du etxarriarrak. Karasatorre "pozik" dago egindako lanarekin. "Gaizki hasi nintzen, baina ongi bukatu. Normalean kontrakoa egiten dut, baina oraingoan horrela gertatu zen". Zortziko handian "abiaraztea" kostatu zitzaion, baina zortziko txikitik aurrera "hobera" egin zuen eta hama-



Saats Karasatorre bertsotzen Irunberriko Gizarte Etxean. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

rreko txikian "gustura" aritu zela adierazi du Karasatorrek. "Bakarka oso pozik aritu nintzen".

Irunberrin jorratu ziren gaiak hauek izan ziren: aireportura oporretara joan eta lagunak motxila txiki bat eraman du eta besteak maleta handia; alkatetza utzi behar duen alkatea eta sartu behar den bestea; kotxe elektrikoa eta kutsadura, eta hasiera ezagutu ez duten arren laguna da.

"Aurreikuspenak egitea arriskutsua eta zaila da". Karasatorre Nafarroako Bertsolari Txapelketarako sailkatu da, baina ez da aurreikuspenake egiteko gai, izan ere, "asko esaten duzu eta gero kontrakoa izan daiteke". Hala ere, aurre-kanporaketan egindako lanarekin "pozik" dago. Baita duela bi urteko txapelketan egindako lana ere. 25. sailkatua izan zen Karasatorre.

Granizoren lehenengoa

Idoia Granizo bertsolari altsasuarra ez du lortu Nafarroako Bertsolari Txapelketan sailkatzea, gertu gelditu bazen ere. Iruñeko aurre-kanporaketan "sailkatuen hurrengoa" gelditu

zen, hau da, laugarren sailkatua izan zen puntuen arabera. Bi aurre-kanporaketen sailkapen orokorrean zortzigarren sailkatu zen. Aurrera pasa ez badu ere, Granizo "espero nuena baina sentsazio hobearekin" gelditu da. "Giro ona zegoen, jende asko hurbildu zen eta gure artean oso eroso kantatu genuen".

Granizo bosgarren aulkian zegoen eta oso eroso aritu zen ofizioetan. Kartzelan denbora gehiegi egon zela esan du, eta "kontzentrazioa galdu" zuela han. Puntu erantzunetan "irritatu" omen zen, baina ofizioekin oso pozik zegoela.

Gaiak denetarikoak izan ziren, "umorea eta gai soziala, denetarik; beti bezala".

Lehenengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa izanen zen Granizorendako. Atarian gelditu den arren, "pozik" dagoela esan du. "Beti egoten dira bertso onak eta bertso txarrak". Aurre-kanporaketa ondoren jendea gerturatu zela esan du, "eta saltoa ikusi dutela esan didate. Oso ongi ari naizela". Lanak "frutuak" ematen dituela ikusten ari da Granizo. Gaztea da; hortaz, aukera gehiago izanen ditu.



'Madres y Pasotas' antzezlaren une bat. TARIMA BELTZA

Tarima Beltzak "ama kemenei" eskainiko die biharko emanaldia

Tarima Beltzak 'Madres y Pasotas' antzezlana berrestreinatuko du bihar, larunbata, 19:30ean, Iortian

ALTSASU

Madres y Pasotas Dario Foren lanean oinarritutako antzezlaren protagonista Maria da. Mariak dena uzten du bere semea laguntzeagatik. Azkenean, semea ere alde batera uzten du. Maria ama kemen bat da, Altsasuko auziagatik auzipetutako gazteen amak bezala. Hala ere, Altsasuko amek ez dute seme-alabak alde batera utziko. Tarima Beltza antzerki taldeak *Madres y Pasotas* antzezlaren berrestreinatzea eginen du bihar, ilbeltzaren 26, larunbata, 19:30ean, eta Altsasuko amei eskainiko die.

Tarima Beltza taldeak hamar urte bete zituen 2017. urtean. Baina antzezlana berria mustu ez zuten, iaz egin zuten urteurrenaren ospakizuna: *Madres y Pasotas* antzezlana estreinatuta zuten. Maiatzean egin zuten emanaldia. Estreinaldiaren egunean bertan hainbat ekitaldi egon ziren, Iruñean egindako Josefina Arregiren omenezko *Ahantzura* ikuskizuna kasu, eta horregatik, Tarima Beltzako ikusle askok ezin izan zuten antzezlana ikusi. Beraz, "herriak eskatzen zuelako", antzezlana berrestreinatzea erabaki zuten.

Antzerki zikloa

Antzezlaren berrestreinatzea urtero egiten duten elkartruke zikloaren hasiera emanaldia izanen da ere. Duela hainbat urte zikloa hilabete batean egiten zuten, baina urtean zehar egitea erabaki zuten. Hortaz, biharko Iortia kultur gunean eginen du-

ten emanaldiaren ondoren Garesen eta Mutiloan egonen da Tarima Beltza. Martxoaren 2an, aldiz, Lizarrako Kilkarrak antzerki talde amateurra Altsasun egonen da *La opera de tres centavos* lanarekin. Castroko eta Abadiñoko antzerki taldeak etorriko direla ere aurreratu dute.

Emanaldi berezia

Madres y Pasotas antzezlana komedia bat da. Dario Fo antzerkigilearen *La madre pasota* bakarrizketan oinarrituta dago. Asun Abadek egin du adaptazioa. Komedia bat da, eta gaia ama kemen bat da. Baina, azkenean, protagonistak dena bere semeagatik utzi ondoren, bere bidea hartzea erabakitzen du. Altsasuk ama kemenei buruz asko daki, Altsasuko auzian deitutakoan auzipetutako gazteen amek kemena erakusten dutelako. "Estreinatuta genuenean ama bat gerturatu zen eta esan zigun identifikatuta sentitu zela". Ezberdintasuna nabaria da: "antzezlana fikzioa da, hor dago komedia. Errealitatea da Altsasuko amek ez dutela paso egiten. Ez dute egiten".

Antzezlana berrestreinatuko zutela jakin zutenean irabazitakoaren zati bat Altsasuko gurasoei ematea pentsatu zuten, kontuan hartuta, gainera, antzezlaren gaia. "Dirua ematea ongi dago, baina hor gelditzen da". Beraz, zerbait gehiago egitea pentsatu zuten: ekimen xume bat egiten dute antzezlaren emanaldiaren ondoren.

"Euskara praktikatzeko beharrezkoak dira"

Aitor Irigoien Mintzakide programaren arduraduna da. Astean behin euskara praktikatzeko elkartzera da Mintzakide programaren helburua. Sakanan hamabost talde daude, eta 80 mintzakide inguru Sakana osoan zehar

E. Carreño - E. Ruiz SAKANA

1 Zer da Mintzakide talde bat?

Euskara praktikatu nahi duen jendea biltzeko talde bat da. Kafe bat hartzeko, mendira joateko edo eskalatzeko elkartzera dira. Euskara praktikatzeko taldea da, beraz.

2 Euskara praktikatu bai, baina zerbait gehiago egiten da?

Egia esan Sakanako talde gehienak kafea hartzeko biltzen dira. Hilabetea behin elkartzera den Mintzakide taldea bat dago, eta zerbait berezia egiten dute: zerbait ikustera joaten dira edo bisita gidatu bat egiten dute. Baina jende gehiena kafearen inguruan biltzen da. Hala ere, baldin badago pertsona bat mendira joan nahi duena, bidelagun bat aurkitzen saiatuko ginateke.

3 Nortzuk dira bidelagunak?

Euskaldun zaharrak dira eta haien lana Mintzakide talde batean dinamika egitea da. Pentsa sei pertsona kafea hartzera biltzen direla eta hizketan ari direla, baina bat batean elkarriketa despeditu egiten dela. Bidelagunaren lana izango litzateke elkarriketa hori berriz



Aitor Irigoien. UTZITAKOIA

aktibatzea, bizirik mantentzea. Zuzentzea ez da bere lana.

4 Taldeak autonomoak dira?

Nahiko autonomoak dira. Orain mundu guztiak whatsapp duenez, bertatik pasatzen dugu

informazioa eta asteko agenda. Facebook-etik ere informazioa elkarbanatzen dugu. Nire lana da urte hasieran taldeak aktibatzea eta urtean zehar talde horiek martxan mantentzea.

5 Taldeak sortzeko gutxieneko parte hartzaile kopurua behar da?

Ez. Gutxienekoa izan daiteke bi: bidelaguna eta mintzakidea. Gaur egun ez dago halako talderik, baina izan ditugu. Hirutik gora bada hobe, gai gehiago ateratzen dira eta. Baina bikote hori ongi moldatzen bada, ongi.

6 Euskara maila aldetik, zer nolako maila behar da?

Gutxieneko maila bat izatea gomendagarria da. Mintzakide taldearen helburua astean ordu batean gutxienez elkartzera eta ordu horretan euskaraz hitz egitea da, beraz, hasiberri den bat ez da gai izango ordu batez euskaraz hitz egiteko eta esaten den guztia ulertzeko. Orduan, parte hartzaileak gai izan behar dira esaten dena ulertzeko eta parte hartzeko. Badaude maila baxuagoa dutenak, baina denak dira maila berekoak. Talde hau elkartzera da eta esaldi motzak esaten dituzte. Ongi moldatzen dira. Aurten hasi da talde hori.

7 Taldeak oreka daitezke.

Maila batetik aurrera batzuek makurxeago hitz egingo dute eta beste batzuek hobeto. Esaten den guztia ulertzeko eta elkarriketan parte hartzeko moldatzen badira taldeko kide guztiak, ongi.

8 Aurreko urtetako taldeak mantentzen dira?

Gehienak mantentzen dira. Ni aurten hasi naiz Mintzakide dinamizatzaile, Edurnerengandik hartu dut erreleboa eta pasa dizkidan talde gehienak mantendu dira. Baten bat desagertu da, baina gehienak mantendu.

9 Seinale ona da jendeak errepi-katzen badu.

Bai. Azkenean ez da hainbestetako lana. Astean behin gertatzen zara kafea hartzeko edo paseo bat ematera joateko. Ez da klasera joatea bezala; errazagoa da. Aste batean ezin baduzu joan, gainera, ez da ezer gertatzen.

10 Euskara ikastearen prozesuan laguntzen du?

Nitako beharrezkoa da Mintzakide programan parte hartzea. Jendea euskaltegira etortzen da eta pentsatzen du horrekin nahikoa dela. Baina praktikatzera falta zaie. Mintzakidearekin lortzen da euskaltegiko ikasle horiek klasetatik kanpo euskara praktikatzera. Izan ere, pertsona batekin erdaraz hitz egiteko ohitura badute oso zaila da aldatzea.

11 Zenbat talde daude?

Sakanan hamabost talde daude, eta 80 mintzakide inguru. Badira, bai. Gainera, Sakana guztian daude taldeak: Ziordian; Olaztin; Altsasun bost talde daude eta horietako bat Altsuko euskalkia praktikatzeko taldea da eta pintxopotean aritzen dira lau pertsona; Urdiainen; Iturmendin; Arbizun; Arakilen astelehen zorionsuak egiten dituzte, eta hilabetean behin ekimen bat egiteko elkartzera dira; Ihabarren beste talde bat dago eta Irurtzunen hiru. Bakaikun agian ere sortuko da bat. Jendeak aukera baditu. Gutxieneko kopurua ez dagoenez erraza da taldea egitea. Parte hartu nahi duena Euskaltegitik pasa edo Facebook-eko orrialdearen bidez harremanetan jar daiteke.



**DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA**

**DISEINU GRAFIKOA ETA ILUSTRAZIOA: LOGOTIPOAK, KARTELAK,
TXARTELAK, ESQUORRIAK.
EDITORIALA: LIBURUAK, BOLETINAK, ALDIZKARIAK, KATALOGOAK.
MARKETING DIGITALA: WEB ORRIAK, SARE SOZIALEN KUDEAKETA.
ITZULPENAK.
EDUKIEN SORMENA, ERREDAKZIO LANAK.**